




BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1994ko uztaila. 4. zenbakia. Doan banatzen da.




Mundutik gurera

# ESKUALDE OSOKO ETXEETARA IRISTEN GARA HILERO!!



ADUNA 1992



ANDOAIN 1987



ASTEASU 1988




LARRAUL 1974



ZIZURKIL 1969



ZURE  
PUBLIZITATEA  
BEHAR DUGU



BILLABONA 1974

LAGUN IGUZU AIURRI  
ALDIZKARIA ARGITARATZEN!!

2. AGENDA
4. INKESTA: Udan ba al dago herrian gelditzerik?
6. BERRIAK LABUR
8. ZIKULU SALTSA: AHTk lehentasuna izango du.
11. HERRIZ HERRI
17. ERREPORTAIA: United Colours of Beterri.
20. ELKARRIZKETA: Amaia Usabiaga "Andoingo Toponimiaren" egilea.
22. BASERRIAN: Gipuzkoako landarezale handienetakoak.
24. KULTURA: Rikardo Arregi kazetaritza sariaren VI. edizioa.
26. KIROLA: Indarrak ba al du sexurik?
28. ZAHARRAK BERRI. ERRETRATU ZAHARRA.  
Iturriotz benta lau herriren topagune
30. MUSIKA: Ezin musikarik gabe bizi.
32. BEGI ARGIA
33. HEMEROTEKA
34. HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
35. MERKATU TXIKIA
36. ZURE HIZPIDEA
37. AIURRITARRAK: HABE-AEK hitzarmena. Joseba Erkizia.
38. ESKOLA ARTEKOA: Uztailean, "Goazen jolastera".
40. PASADIZOAK



Aldizkari honek Eusko  
Jaurlaritzako Kultura sailaren  
laguntza jaso du

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Amaia Etxezarreta, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian. **Laguntzaileak:** Jose Luis Larretxea, Joxe Eizmendi, Xabier Lasa. **Argazkiak:** Manu Mujika, Karmelo Marzol. **Komikia:** Iñaki Gonzalo. **Publizitate arduraduna:** Aitziber Iraola. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU.s.coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

# Agenda

## JAIK

### ADUNAKO JAIK

- **Abuztuak 13:** Goizean kalejira buruhandi eta txistulariek alaituta. Gauean herri afaria eta trikitixa Laja Landakandarekin.

- **Abuztuak 14:** Goizean meza nagusia eta pelotari afizionatuen saioa ondoren. Arratsaldean dantzariak. Gauean bertso saioa eta Maltzeta trikitilariak.

- **Abuztuak 15:** Goizean meza nagusia. Axeri dantza eta herriko dantzari gazteak. Arratsaldean herri kirolak eta dantzaldia Trakets taldearekin.

- **Abuztuak 16:** Oilasko joko goizean eta haurren jolasak arratsaldean. Gauean afaria eta trikitixa.

- **Abuztuak 21:** Goizean sagardo dastaketa eta txekor jatea. Arratsaldean toka joko eta ondoren trikitixa.

### ANDOAIN:

#### ETXEBERRIETAKO JAIK

- **Uztailak 29:** Txupinazioa, haur jolasak, pony-ak, txokolatada, sardina-jana, boxeoa eta dantzaldia.

- **Uztailak 30:** Futbol saioa, mus txapelketa, pony-ak, herri kirolak eta dantzaldia.

- **Uztailak 31:** Meza. Trial-Sin erakusketa, bazkari herrikoa, zaharrei omenaldia, dantzaldia. Nafarroako jotzen jaialdia eta dantzaldia.

#### SAN ESTEBAN JAIK

- **Abuztuak 3:** Meza santua eta trikitilari gazteak egun osoan zehar.

- **Abuztuak 5:** Gauean dantzaldia Trakets taldearekin.

- **Abuztuak 6:** Eguerdian oilasko joko eta gauean dantzaldia Laiotz taldearekin.

- **Abuztuak 7:** Goizean meza santua, trikitilariak eta Sorozabal eta Telleria bertsolariak. Arratsaldean bigarren bertso saioa. Afal ondoren trikitixa Rekalde anaiekin.

#### SAN ROKE EGUNA

- **Abuztuak 16:** Goizean meza auzoko hildakoen alde, sokatira, haur jolasak, Telleria eta Saizar harrijasotzaileen saioa, trikitixa Lasa anai-arrrebekin, Narbaiza eta Larrañaga bertsolarien saioa eta obi bezala auzoko bazkaria. Ilunabarrean gazte taldearen jaitsiera.

- **Abuztuak 20:** Oilasko joko eguna. 6.15etan oilasko biltzeari emango zaio hasiera. Ilunabarrean bertso afaria Gaztañaga sagardotegian Mendizabal eta Telleria bertsolariarekin eta Koldo eta Ixiar trikitilariarekin.

### BILLABONA:

#### SANTIOAK

- **Uztailak 29:** Goizean sokamuturra. Nekaezinak txarangaren saioa eguerdira arte haurrentzako jaialdiarekin batera. Eguerdian koadrilen arteko bazkari intsumisoa Etxe-Ondon. Arratsaldean haurrentzako dantzaldia eta gauean dantzaldia Harkaitz taldearekin. Bien bitartean Nekaezinak txaranga ibiliko da kalez kale.

- **Uztailak 30:** Goizean sokamuturra, erraldoi eta buruhandien irteera. Arratsaldean Pentlathonaren finalak. Gauean txalaparta emanaldia, bertsolariak eta dantzaldia Urrats taldearekin. Ondoren mozorren jaia eta goizaldean txokolate-jana.

- **Uztailak 31:** Goizean kalejira txistulariekin, ondoren sokamuturra eta erraldoi eta buruhandien irteera. 1.1etan Hasperren eta Billabona arteko errebote partidua. Arratsaldean herri kirolak eta gauean nazioarteko jaialdia. 12.30etan ekingo zaio erroskilaren ehorzketari jaiei amaiera emateko. Goizaldera arte txaranga izango da.

#### AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAREN EGITARAUA:

- **Uztailak 30:** Gaueko 8etan afari herrikoa zentroan. Txartelak Iratzar ta Ilargi tabernetan daude salgai. 12.30etan Senideak erakundeari omenaldia errebote plazan. Goizeko ordubatean "Amnistiaren alde, treguarik ez" lemapean manifestazioa.

- **Uztailak 31:** Presoen lanen erakusketa berdura plazan.

#### ZIZURKIL: GOIAN:

- **Abuztuak 13:** Aintzineko I korrika, herri afaria eta dantzaldia Traketsekin.

- **Abuztuak 14:** Dantzari txiki saioa, herriko trikitilarien emanaldia. Eguerdian bazkaria herriko haurrentzat Intxaur pilotalekuan. Arratsaldean Azkona taldea. Helduentzat V. mus txapelketa eta pultsulariak. Ondoren preso eta errefuxiatuen gauda: Egan taldearekin dantzaldia.

- **Abuztuak 15:** Bukalai dantza taldearen emanaldia. Arratsaldean herri kirolak. Gauen bertso saio Egaña, Lujanbio, Lizaso, Arozena eta Iturriagarekin. Ondoren eta goizaldera arte Tapia eta Leturiaren saioa.

- **Abuztuak 16:** Goizean pelotariak. Ondoren Tapia soinu-jolearen saioa. Zeberio eta Mikel Mendizabal bertsolarien saioa. Jubilatuen bazkaria. Arratsaldean III. auto-krosa. Bukaeran abere proba eta barrikotea. Gauean Trakets taldearekin dantzaldia.

- **Abuztuak 17:** Oilasko joko.

### ELBARRENAKO JAIK

- **Irailak 3:** Mubi karrera eta kontzertua.

- **Irailak 7:** Nesken arteko futbol partidua, blusen poteoa, afari herrikoa Pasusen eta gauean danborrada eta txaranga.

- **Iraila 8:** Haurren jolasak, zubiaurretxo kanpan koadrilen bazkaria, pentatloia. Gauean bertsolariak eta Harkaitza taldearen saioa.

- **Irailak 9:** Meza nagusia, loreontzi eta makailu lehiaketa. Arratsaldean asto karrera eta dantzariak. Gauean mozorro jaia, play-back saioa eta Urrats taldearen saioekin.

- **Irailak 10:** Goizean pultsulariak eta haurren argazki erakusketa. Arratsaldean haurren antzerkia eta txokolatada. Gauean Izotz taldearen saioa. Ondoren batzuri zopa-jana eta txokolatada.

- **Irailak 11:** Goizean sagardo eta sardina dastaketa, arratsaldean herri kirolak eta gauean Akelarre taldearekin dantzaldia.

### ERAKUSKETAK

**ANDOAIN:** Leire Arzuagaren erakusketa Txuri Beltz tabernan abuztuak 15a arte. "Pakistan 93 txuri-beltzez".


**BILLABONA:** Hilaren 31a arte egongo da ikusgai Juan Luis Goenagaren pintura erakusketa zineko erakusketa aretoan.

### LEHIAKETAK

**BILLABONA-ZIZURKIL:** Argazki lehiaketa. Gaia eta egiteko modua egilearen aukeran egongo dira. Bi modalitate egongo dira: koloredun argazkia eta argazki zuri-beltza. Lehiakide bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Lanak irailaren 16rako aurkeztu beharko dira Billabona edota Zizurkilgo Kultur Etxean.

### BESTE


**EUSKAL FONDOA:** El Salvadorren lanean aritu den Aoizko Ana Isabel Ripodas Mugetak izan duen iztripuaren ondorioz ospitalean dago larri. Ospitaleko gastuei aurre egiteko dirulaguntza eskatzen du erakunde honek ☎ (94) 41 46 08



# ZIZURKIL JAIETAN

GOLAN: Abuztuak 13 - 17.

ELBARRENAN: Irailak 3 - 11.




UDALA ETA  
ANTOLATZAILEEN

IZENEAN



**"ONDO PASA FESTAK GOLAN ETA BEHEAN"**

3



LARRAULGO UDALAK HERRITAR GUZTIEI

*"San Esteban eta San Bartolome"*

*jai zoriontsuak opa dizkizue*

# AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

# MUSUTRUK DEBALDE

Bidal iguzu izen-emateko txartela edo dei ezazu **30 07 32** zenbakira

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

# Udan ba al dago

Uda iritsi eta oporrak hartzen dituzten asko izaten dira kanpora joan ohi direnak. Hala ere, guk uste baino gehiago gelditzen dira beren herrian ere, gelditu eta ondo pasatu gainera. Kostalderako eta batez ere Donostirako joera dute herrian gelditzen diren gehienek, hondartzara, eguraldi ona badago, edota bestela, egun pasa. Mendira abiatzen direnak ere ez dira gutxi. Gazteak, dirudienez, jai giroa eta martxa bila joan ohi dira ez oso urruti; edadetuagoek lasaitasuna estimatzen dute gehiago; lanagatik gelditu behar izaten denik ere izaten da. Galdera egindako guztiek, bestalde, badirudi oporrak gogoz hartu ohi dituztela.



**Xabier Morabide, langilea. Billabona.**

Billabonan oso ondo igarotzen dira oporrak; Donostiatik oso gertu dago eta hondartzara joan zaitezke, eguraldi ona egiten badu behintzat. Ni askotan joaten naiz Donostia eta Zarautz aldera. Bestalde, herrian geldituz gero ere, oso ondo, oso herri txikia eta lasaia baita. Neri asko gustatzen zait mendira txakurrarekin joatea eta oso paseo ederrak egiten ditut hemen inguruan. Oraintxe bertan oporretan nago, eta ederki nago hemen inora joan gabe.



**Nerea Elduaien, ikaslea. Aduna.**

Herriko lagunak elkartu ohi gara eta oso ondo pasatzen dugu. Bero dagoencan autobusak jartzen dituzte eta Tolosara pizsinara joaten gara. Aspertzen garenean batzuetan joaten gara kanpora baina, bestela ez gara asko irtetzen, eta gustora egoten gara..., eskolan baino hobeto. (Egia esan, lagun koadrila txirringaz bate-tik bestera ikusita, ez zirudien arratsaldea batere gaizki pasatzen ari zirenik).



**Ana Mari Aizpuru, dendaria. Asteasu.**

Oporretan Asteasun inora joan gabe ere oso gustora gelditzen gara gu, lasai-lasai. Haurrak eta gazteak Aiara joaten dira pizsinetara edo hondartzara. Nik neuk ez ditut oporrak egiten, abuztuan ere denda irekita izaten dut eta. Goizaldean egiten dugu lan pixka bat, eta arratsaldetan jai hartzen dugu. Donostiara joaten gara batzuetan edota hementxe gelditzen gara, gauza handirik ez dugu egiten.

KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

**Aduna  
Altzariak**  
Altzarien erakusketa,  
fabrikazioa eta salmenta



Elbarrena auzoa, z/g  
☎ 69 15 62 - 66 - Faxe 69 34 66  
ADUNA

# herrian gelditzerik ?

## Jose Antonio Urrutia, taxista. Andoain.

Ni ez naiz herritik irtetzen, lan egin beharra izaten dut, lana baldin badago behintzat, lan asuntoa badakigu nola dagoen... Abuztuan Gasteizera joaten gara jaietara, horiek izaten dira gure oporrak. Etxekoek horrez gain, bueltatxo bat ematen dute, baina ez oso uruti. Dena den, herrian oporretan geldituta, ambiente txarra dago, ambiente hila, horregatik jende gaztea kanpora ateratzen da, baina hori aspalditik da, herriko jende gaztea Hernani eta Tolosara joan ohi da betidanik.



## Inazio Aranburu, jubilatua. Zizurkil.

Ni Zizurkilen gelditzen naiz udan, urte osoan bezala. Gaztetan ez ginen irtetzen, orduan lana egin behar izaten genuelako, eta orain berriz, jubilatuta egon arren, gutxiago irtetzen gara oraindik. Ez daukagu ia horretarako gogorik. Orain batera eta bestera ibiltzen naiz denbora pasa; bueltatxo bat eman, enkarguak egin... Hondartzara ez gara joaten; semeak Donostian dauka pixua, eta batzuetan joaten gara, baina egun berean egiten dugu joan eta etorri.



## Aloña Niebla, ikaslea. Andoain.

Udan ez naiz Andoainen gelditzen, kanpora joaten naiz, hemen ez dago mar-txa handirik. Inguruko herrietan ez dakit batere girorik dagoen, baina Andoainen behintzat, ez dago gelditzerik. Nafarroako herri txiki batera joaten naiz abuztuan, han etxetxo bat daukagu, eta primeran pasatzen dut festetan. Uztailean hemen nagoenean, eta eguraldi ona badago, hondartzara joaten naiz.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**

**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

# Berriak

## ● Ikurriñaren mendeurrenean

Uztailaren 14ean ospatu zen gure herrietan ikurriñaren mendeurrena. **Andoainen**, eztabaida ugariaren ondoren, batzorde berezi bat sortu behar izan zen egun horretan burutuko ziren ekintzak zehazteko: ikurriña gauerdian jarri zen Udaletxeko balkoian eta egun osoz egon zen bertan. Halaber, arratsaldean omenaldia eskaini zitzaion ikurriñari txalapartari, bertsolari eta dantzarien laguntzaz. Batzordea berriro bilduko da irailean aurrerantzean ikurriñaren erabilera ezarriko duen arautegia erabakitzeko.



**Asteasu**n ez zen egun horretan ospakizun berezirik izan. Udaletxeko balkoian ikurriña egon zen 1991ko urriaz geroztik egon den bezalaxe, izan ere, Udal Batzak orduan onartu zuen independentziaren aldeko mozio bat, eta bertan ikurriña Udaletxeko balkoian iraunkor mantentzea erabaki zen.

**Billabonako** Udal Batzak aho batez onartu zuen egun osoz ikurriña Udaletxeko balkoian edukitzea. Hemen ere arratsaldean omenaldi jendetsua izan zen trikitilari, bertsolari eta dantzarien parte hartzearekin. Dantzariak eginiko ikurriñaren dantzak txalo beroak jaso zituen herriarengandik.

**Zizurkilen**, Asteasu bezala, eta onartutako independentziaren mozioaren ondorioz, ikurriña egun horretan, aurrekoen pare, Udaletxeko balkoian egon zen. Gainera, etxez etxe plastikozko ikurriñak banatu zituen Udalak. Joxe Arregi enparantzan ikurriña erraldoi bat jarri zen.

## ERNIO-BEHEA

### ● Bost herrietarako artxibo zerbitzua

Aduna, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkil herriek euren artxiboak ireki eta herriaren zerbitzutan jartzeko asmoarekin ekin diote esperientzia piloto berri bati Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Orain arte Gipuzkoan 12-15.000 biztanle gorako herriek baino ezin zuten zerbitzu hau eskaini, herri txiki bakar batean artxibari bat lanean edukitzea ez baitzen errentagarria. Eskualdeko herriak bilduz orain ikusi da horrelako egitasmoak aurrera ateratzea posible dela, horregatik beste herri batzuetan ere esperientzia honek jarraipenik izango duela uste da. Borja Aginagalde Eusko Jaurlaritzako artxiboetako arduradunaren esanetan, Jose Luis Larretxea donostiarra da hain zuzen ere, zerbitzu honen arduraria izango duena.

Artxibo honek, beste guztiek bezalaxe, bi funtzio nagusi izango ditu: batetik, funtzio administratiboa, alegia Udaletako martxan sortzen diren agiri eta idatzi guztien sailkapena eta herritarrari eskuragarritasun erraza ziurtatzea. Funtzio kulturalari, bestetik, eman diote bost Udalek garrantzi handia, "artxiboetako atek ireki eta bertan dagoena ezagutaraztea dugu helburutzat" adierazi zuten Udal ordezkariak. Asmo horrekin antolatuta nahi dira zenbait erakusketa artxiboko materialaz baliatuz. "Gainera, ziur nago atek ireki bezain laster ikerlari edota interesa duen herritar asko hurbilduko dela bertara herrietako historian miatzera" ziurtatu zuen Borja Aginagalde.

Larretxeak adierazi du bost herrietako artxiboak nahiko ondo egokituta daudela eta kantitatez zein kalitatez aberatsak direla gainera. "artxiboak miatzen konturatu naiz zein garrantzitsuak izan ziren herri hauek garai batean" esan zuen. Herri guztietan lana egiteko irizpide amankomun batzuk ezartzea da egin beharreko beste lanetako bat. Jose Luis bost herrietan arituko da lanean, bere denbora herri bakoitzaren biztanlegoaren arabera banatuz. Bestalde, datuak informatizatzeari ekin behar dio lehenbailehen aurrerako lana errazteko, lan hau Zizurkileko artxiboan baino ez baitago eginda.



## ANDOAIN

### ● Etxebizitzak ijitoentzat



Andoaingo Udalak kalean bizi diren bi ijito familiei etxebizitzak eskaini dizkie Ongizate zerbitzuak burututako gutxiengo etnikoei zuzenduriko egitasmo bati jarraituz. Une honetan eta Udalarekin hitzarmen bat sinatu ondoren Txistokiko zubipean bizi zen familia Etxeberrieta auzoan ari da dagoeneko bizitzen eta oraindik 17. poligonoan dagoen beste familia, hitzarmena sinatu bezain laster, aldatuko da etxe batera. Udaleko gizarte laguntzailea den Ana Sanz-en arabera, egitasmo hau orain arte familia hauekin eman diren urratsen jarraipena baino ez da: "Orain dela urte batzuk haurrak eskola ezberdinetara eramatea lorpen handia izan zen. Gaur egun emaitzak oso onak izan direla esan dezakegu eta haurrak integratuta daudela". Etxebizitzak eskaintzea beraz, integrazio nahi honetan beste aurrera pauso bat izango litzateke. Etxebizitzetan ezingo dira hiru urtez baino gehiago egon, "orain arte familia horrek arazo latzak izan dituzte etxebizitzaren bat alokatzeko, inork ez zituelako maizter hartu nahi" kontatu digu Ana Sanzek "hiru urtez etxe batean egon eta moldatzeko arazorik ez dutela ikusi ondoren, edozein

herritarrek familia hauei etxebizitzaren bat alokatzea lortu nahiko genuke".

Andoaingo Askagintza taldeak burutzen ari den egitasmo honi buruzko beste ikuspegi bat agertu nahi izan du proposamen batzuk eginez. Talde honen esanetan Udalaren egitasmoa familia hauen integratze berrira baino, absorzio dago zuzenduta, alegia, geurea den kultura dominatzailea inposatzeko arriskua dago. Horregatik hain zuzen ere, beraiekiko harremanak kultura ezberdinen arteko hartu-emanetatik abiatu behar duela uste dute. Ana Sanzek ziurtatu digu egitasmo hau beraien kulturarekiko errespeto osoz dagoela pentsatuta eta, are gehiago, ezer egiten hasi baino lehen ijito elkarteari aurkeztu ziotela eta oso egokia iruditu zitzaizela. "bestalde, familiak beraiek eskaintzari egin dioten harrera onak bermatzen du egitasmoa" dio gizarte laguntzaileak.



## ● Elkartasuna saharauriar herriarekin

Maxen Zinkunegi eta Begoña Mujika zinegotziek lau egun egin dituzte ehun errefuxiatu saharauriar baino gehiago dauden Algeriako Tindouf hiriko errefuxiatuen kanpamenduan. Beraiekin batera Estatuko beste komunitate batzuetako ehun lagun inguru izan dira. Bidaia honen bitartez Andoaingo Udalak Nazio Batuak Mendebal Sahararako bultzatutako Bake Planari bere laguntza eskaini nahi izan dio.

Herri saharauriarren autodeterminazio eskubidea bermatzeko, honez gero eginda egon behar zuen erreferenduma egin dadin agintari marokkiarren presioa egitea izan da bisataldi honen helburu garrantzitsua. Erreferenduma 1991an egitea aurrikusi zen hasiera batean, eta hilabete honetan bukatzen da, hain zuzen ere, agindutako betetzeko Nazio Batuak ezarritako epea. Erreferendumaz gain Marokko, Fronte Polisarioa (Mendebal Sahararen independentziaren aldeko mugimendua) eta Espainiarekin batera beste begirale batzuek parte hartuko duten nazioarteko konferentzia egitea da Bake Planaren beste asmoetako bat.

Nafarroako zein Euskal Komunitate Autonomoko hogeit hamar herri baino gehiagok hartu dute parte bidaia honetan, eta azken hauek Euskal Legebiltzarrak eragindako ekimen baten partaide izan dira: Algerian errefuxiatuta dauden zenbait herriarekin elkartasuna eta laguntza eskaintzea helburu duten hirikidetasun hitzarmenak sinatzea, alegia, Hitzarmen horien bidez praktikan gauzatuko diren eta errefuxiatu saharauriarren eguneroko bizitzan baliagarriak eta oinarritzkoak zaitzkiezen zenbait egitasmoei hasiera eman nahi zaie, laguntza ekonomikoak, hartu-eman kulturalak edota bestelakoak bultzatuz, "ez baitauka inongo zentzurik hitzarmenak egin eta laguntza zehatzak ez ematea" dio Maxen Zinkunegik.

Polisarioek lagunduta egon dira momentu oro bisitariak. Euren herriatik ihes eginda saharauriarrak nola bizi diren hurbiletik ikusteko aukera izan dute euskaldunek, eta Maxenek berak adierazi digunez, beren bizi baldintza eskasak ikusita, osasun zein hezkuntza arloa zein ondo daukaten antolatuta da bera gehien txanditu duena. Bestalde, egoera politikoa benetan gogorra izanik -1975tik daude Algeriako mugatik 30 kilometrotara errefuxiatuta- saharauriarrak agertzen duten etorkizunarako baikortasuna eta euren borrokarekiko kontzientzia maila altua da euskaldunen arreta bereganatu duena.



# GYRE LAVBIDE, S.L.

**STIHL®**  
Kubota  
Husqvarna  
**AGRIA**  
**YAMAHA**

## SALMENTA ETA KONPONKETAK

Motoaitzurrak - motozerrak - sasikengailuak - segak - sulfatailuak - generadoreak - ordezkak - eranskinak

## Belarra mozteko garaian ere berezia zarelako

# YAMAHA

### BELARMOZGAILUAK

Teknologia eta segurtasuna zure eskura

Nazional 1 errepidea, Bazkardo bidegurutzea

☎ 59 01 78 - ANDOAIN




## AHTk lehentasuna izango du

Katalunia eta Euskal Herrian lanak aldi berean egingo dira

Europako Batasuna osatzen duten hiriburu, merkatal eta garraio gune garrantzitsuenak elkarrekin lotzea da Abiadura Handiko Trenaren (AHT) helburu pisuzkoenetako bat. Europako zenbait herrialdetan sare nahiko osatuta dago jadanik. Espainian tren azkarak Madril-Sevilla ibilbidea betetzen du dagoeneko. Besteak beste, Euskal Herriari dagokion tartea osatzea falta da estatuan, Europako gainerako herrialdeekin komunikatu ahal izateko. Eta hain zuzen ere, hilabete honetan bertan erabaki du Europako Kontseiluak Akize (Dax)-Madril lotzen duen ibilbideari,

Europako beste 10 azpiegitura handirekin batera, lehentasuna ematea, are gehiago lanak 1996era aurreratzea aholkatu du. Euskal Autonomi Elkarte barruan, bien bitartean, "Y" deituriko egitasmoa ari da garatzen, Nafarroarekiko berriz, "H" izenekoa, lau hiriburuak lotu asmoz. Gasteizko nahiz Madrilgo gobernuak adierazi dutenez beren nahia lanak 2.010 urterako bukatuta egotea da. Oraindik ere proiektu horien finantziarioari aurre nola egingo zaion garbi ez daukatela adierazi dute Europako agintariek, baina ekimen pribatuaz beharko duela izan aurreratu dute.





Adunaren informazioa zabaldu zen

## Zer da AHT?

250-350 km. orduko abiada izango du bidaiarientzat abiadura handiko trenak. Merkantziak garraiatuko dituen berriz, 120 km. orduko ibiliko da. 1.000 tona garraia ditzakeelarik. Eta hain zuzen ere, Madril nahiz Gasteiztik ematen ari den informazioari jarraituz, merkantzia garraioa da trenaren helburu nagusia, izan ere, behin eta berriz azpimarratu da Bilboko zein Pasaiaiko porturako loturek izango duten garrantzia. Abiada horretan mugitzen den trenari eusteko beraz, azpiegitura berriak eraiki behar izan dira eta eraiki nahi dira. Dena den, merkantzia trafikoak 500 km. baino distantzia handiagoak hartuko dituzenez eta Europako trafiko osoa hartu ezin dezakeenez, bestelako azpiegiturak, autobideak, errepideak... aurrerantzean ere beharrezkoak izango dira, AHT Aurkako Asanbladaren esanetan.

Europatik bi bide izango ditu trenak Espainiara sartzeko; Kataluniatik batetik, eta Euskal Herritik bestetik. European nahiz Madrilen lehenengoari eman zaio orain arte lehentasuna, halere, eta Europako azken erabakien arabera. Perpignan-Bartzelona eta Akize-Bilbo-Gasteiz ibilbideak aldi berean eraikiko dira.

## “H” eta “Y”

1989an hitzartu zuten Madrileko gobernuak, Gasteizkoak eta Iruñeakoak “H” eta “Y” deituriko ibilbideak egitea, guztira 428 km. Egitasmo horri aurre egiteko 357 km. trenbide berri eraiki beharko da. Euskal Autonomi Elkarteak hiru ibilbide zeharkatuko dute: Bilbo-Elorrio-Gasteiz lehenengo, Irun-Deba Garaia-Gasteiz bigarren, eta Irun-Irurtzun-Zaragoza hirugarren. Gobernuak lehenengo ibilbideari ematen ari dira une honetan lehentasuna, Bilboko portuak merkantzia trafikoan daukan garrantzia kontuan hartuz.

## “ 375 km. trenbide berri eraikiko dira Euskal Herrian ”

Hamabi urteko epea behar izango da lanak egiteko. Lan horiek egiteko 645.000 milioitako aurrekontua aurrerikusi da dagoneko, 400.000 milioi Euskal Autonomi Ekartean, 145.000 milioi Nafarroan eta 100.000 milioi gehiago Iparraldean.

## Eraikuntza lanak eta eraginak

Lanak egiteko neurri handiko 128 kilometro tunel egin beharko direla aurrerikusi da: 11,2km.takoa Aralarren, Espainiako handiena bilakatuko litzateke; 8,8ko Arlabanen; 6,5ko bat eta 4ko beste bat Udaltzen; 6,5koa Zumarragan; 5koa Bedaion... Tunel kilometro gehienak Zumarraga inguruan egongo dira kokatuta. Honez gain guztira 12 km. hartuko duten 55 zubibide egongo dira ingurune berean gehienbat. Oro har AHTren Aurkako Asanbladak adierazi duenez Irurtzun-Andoain autobidearen lanak baina lau aldiz gehiago mugitu beharko dira lurra. Ipar Europako makro-egitasmo handienetakotzat jo da hain zuzen ere.

## “Eragina lehen, orain eta gero”



Jabier Zabala  
Adunako alkatea

## Adunaren etorkizuna erabat baldintzatuko du

Trenak erdiz erdi hartuko du herria, erabat moztuko du erditik, eragina oso handia izango da: zati handi bat agerian geratuko da eta Udaltxe azpitik, 20 metrotara baino ez, tunel bat igaroko da. Adunako etxe gehienek 200-300 metrotara izango dute trena. Herrian zerbait jakin dutenak oso kezkatuta daude. Oso gogorra izango da herria eta herritarrentzat.

Ez dakit egingo duten ala ez, ezetz espero dut. Baina azken albistearen arabera, aldeko jarrerak gero eta nabariagoak dira: Europako Batasunak hain zuzen ere, lehentasuna emanaz eta lanak 1996era aurreratzea aholkatuz, laguntza handia eskaini dio egitasmoari. Lehen erabaki politikoa zegoen, orain dirua dago gainera. Hasieran Kataluniako sarrerak omen zuen lehentasuna, orain berriz, Akize-Bilbo-Gasteiz ibilbidea bestea bezain beharrezkoa omen da, hau da, Europa Gasteizen bitartez Gaztelarekin lotu nahi da, eta era berean, Pasaia eta Bilboko portuak.

Nik uste dut gai honek polemika handia ekarriko duela. Niri iruditzen zait agintariek nahikoa erabakita daukatela egitea, jendearen erresistentzia ikusi behar orain.

Tristea da, eta hau guztia gauzak alderantziz egitearen ondorioa da: lehenengo informazioa zabaldu behar zen, eztabaidatu eta alternatibak ikusi ondoren, azkenean, erabaki demokratiko bat hartu. Baina, beste gauza askotan bezala, alderantziz jokatu da: erabakia hartu lehenengo eta gero... ikusiko dugu.



**Pilar Collantes**  
Andoingo alkatea

## Azpiegiturak funtsezkoak dira

Trenak Andoainen izango duen eraginari buruz ez dakigu ezertxo ere ez era ofizialean. Gutxi gorabeherako ibilbidea egin dute Udal teknikariek eta Arau Subsidiarioetan aurrikusi dugu Diputazioan emandako informazioaz baliatuz, baina idatziz ez digute oraindik ezer adierazi, ez ibilbiderik, ez datarik, ez ezer. Lanak egin ala ez, Europako dirulagun-tzen eta gure agintari politikoen erabakien arabera izango da.

Azpiegitura oro, AHT edota beste edozein, herri baten garapenerako baldin bada, ona dela iruditzen zait. Geure gizartea garatzeko maila europarra izan behar dugu. Azpiegiturak funtsezkoak dira, bestela isolatuta geratuko gara, herri batek ongi komunikatuta egon behar du. Ingurugiroan izango duen eragina konpondu beharreko gaia da, baina gaia ikuspuntu guztietatik aztertu behar da.

AHTren aurkako mugimenduak ez dakit zentzu handirik daukan era ofizialean AHTk izango duen eragina oraindik ezagutzen ez bada. Beharbada, informazio gehiago izango dute beraiek, Udalek behintzat, ez dakigu ezer. Halere, kontrako jarrerak agertzen direnean argi esan beharra dagoela uste dut zertan oinarritzen diren aurka agertzeko, eta gaia sakon ezagutu beharra dago ikuspuntu guztiak kontuan hartzeko.

Egia da dagoena baino informazio gehiago behar dugula, informazio erreala eta zehatza. Beti kexatu izan gara informazio ezaz.

## Gaiak istiluak eta enfrontamendua eragingo ditu

Trena Adunatik sartuko da Bulandegi. Beibategi eta Galar-di zeharkatuz, gero Urkamendi alde batera utziz Asteasukoko mugatik igaroko da. Eragina Zizurkilan handia izango da, ibilbide gehiena zubibidean egingo baitu, agerian.

Ez dakit azkenean egingo den ala ez, gaiak istiluak eta enfrontamenduak ekarriko dituela, ziur. Kontrako mugimendua indartu egingo da. Jendea mugitzen eta informazioa biltzen hasia da. Frantzuna handia izango da.

*Desarrollismo basatia* deitzen diot nik horri. Nafarroako autobidea honekin alderatuz *pecata minuta* izango da. Badirudi horrelako egitasmoak goi mailako merkantziari baino ez daudela begira, Bilboko eta Pasaiko superpuertoak adibidez, eta berez, ez dago gaizki baina oreka bilatu beharra dago. Oraindik, gainera, ez da egitasmoa justifikatzen duen ezer aurkeztu. Egin dituzten ikerketek ez dute ia ingurugiroan izango duen eraginari buruzko daturik ematen. Inbertsioak ikaragarriak dira, eta lehentasunak aztertu beharko lirateke.

Nere ustez azterketa sakona egin behar zen lehenengo, eta ondoren, erakunde sozial guztien artean kontsentsua bilatzen saiatu, egitasmoak dauzkan alde onak, txarrak eta alternatibak mahai gainean jarritz. Udalan, bestalde, ez daukagu inongo informazio ofizialik.



**Mikel Arrastoa**  
Zizurkilgo alkatea

AHTren Aurkako Asanbladaren esanetan eraginei buruz hitz egitean hiru alderdi hartu behar dira kontuan: lanen aurretik, bitartean eta ondoren. Lan hauek guztiak egiteko eraikuntza materiala kantitate izugarria beharko da, ondorioz dauden harrobiak ustiratzen eta berriak egiten hasiko direla pentsatzen da, "horrek gure mendietan dagoeneko ezagunak diren kalteak eta berriak eragingo ditu, hondakinak, pistak...", "lanak egin bitartean ekosistema ugari hondatuko dira, Euskal Herri osoan eragina 12.500 espeziengan izango duela pentsatzen da. Ondoren eta energia elektrikoaren erabilerrari dagokionean batez ere, izugarri handituko da kontsumoa, era berean, argi-indarra egingo duten zentral nuklearrak, urtegiak, gas-zentralak behar-beharrezkoak izango direlarik". Espainiako gobernuak hitzartuta dauka dagoeneko Frantziako gobernuarekin energiaren erosketak.

## " 12.500 espeziengan izango du eragina "

AHTren Aurkako Asanbladak ezagutzera eman dituen datuen arabera eraikuntza lanak horrela eragingo dute inguru honetan: une honetan 467 landar espezi daude babestuta eta 165 desagertzeko arriskuan jarriko lirateke. 38 zuhaitz mota ere babestuta daude, "baina interes publikoa duten lanen mesedetan legez babeserako eskubidea deuseztatzen da eta

azpiegiturari lehentasuna eman" dio Asanbladak. Beren esanetan trenak guztiengan eragin bortitza izango luke, hala nola egun dauden 400 hondo motetan. Animaliei dagokienez, 7 arrain mota, zazpi anfibia mota, 11 narrasti, 81 hegazti eta 42 mamifero daude, hauengan ere, 300 insektu motetan bezala, berehalako eragina izango luke.

## Aldeko eta kontrako argudioak

Alde agertu diren erakundeek ekonomiaren sustapena eta modernizazioa erabili dute argudiotzat, batetik, lanpostuak sortuko lirateke, Euskal Herriko enpresek Europako merkatuetara aiseago jo ahal izango lukete, eta, gainera, Borrel ministroaren esanetan; trenak ez luke ingurunea kutsatuko". RENFEko zuzendaritzak dioenez "tunelak eta zubibideak ekologikoak dira". AHTren Aurkako Asanbladaren esanetan "desberdinkeria sozial, marjinazio zein pobrezia sortzailearen ezarpena izango da AHT. Gure ustez trenak gure herriko arazo ekologiko, sozial eta ekonomikoak larriagotu egingo ditu". Beren ustez ekonomiaren garapena aitzakia eta gezurra baino ez da, "izan ere, gizarte sistema horrekin benetan garatzen direnak metropoli handiak eta multinazionalak baino ez baitira, lurra eta ingurunearen kaltetan, aurrerapen ekonomikoa aitzakitzat hartu eta ignuruncarekiko errespetagarritasuna estalki gisa jartzen badute ere".



## Oilasko jokoa lehen eta orain

**Aduna**



Josefa Inazía Eizmendi

*Oilasko jokoa aspaldiko ohitura da eta ez da galduko. Gazteen jaia da eta dibertitu egin behar dute. Oilasko jokorik egongo ez balitz gazteek ez lirateke etorriko, eta*

*orain aitzaki horrekin behintzat, gu ikustera etortzen dira. Horzka ibili ohi direnak beren ausardia erakusteko egiten dute, neri ez zait gai-ki iruditzen. Hori bai, gure garaietan jaien amaieran kontuen herri argi eta garbi ematen genuen, orain herriz isilean gordetzen dituzte kontu horiek.*

Betidanik Adunakoa omen den beste emakume honek ez du bere izenik, are gutxiago bere argazkirik kaleratu nahi izan. Herria txikia omen da eta denek ezagutzen omen dute elkar...

*Oilasko jokoa gauza ederra da, baina gure garaietan egiten zen bazala. Oraingo gazteei iruditzen zaie euren erara egitea dezaketela, baina ez, oilasko jokoa ez da orain egiten duten bezala. Ez zait gai-ki iruditzen neskek parte hartzea, lehen ordea, mutilak bakarrik eta dantzan, konpasean joaten ziren oilaskoa akabatzerako. Horzka ibiltzea herriz, basakeria hutsa iruditzen zait. Nik azkenengo urteetan ez dut ikusi ere egin, nazka ematen dit. Askoz ere txukunago ibiltzen ginen lehen, horrenbeste tontakeria egin gabe.*



Mikel Elola

*Oilasko jokoa elegantea da. Asko dibertitzen gara. Iaz parte hartu nahi izan nuen, baina hamabost urte bete arte ezin dut. Parte hartzeko irrikitzen*

*nago. Neri ez zait iruditzen oilaskoak horzka akabatzea inongo basakeria denik, oilaskoa lehenago edo geroago akabatu egingo dute, beraz...*

Ama Birjina egunean ospatzen dituzte adunarrek beren jai nagusiak, Ama Birjina bigarrena eta hirugarrenera arte luzatuz. Azken egun hau gazteen eguna izan ohi da, eta askoren esanetan alaiena. Egun horretan aspaldiko ohiturari jarraituz oilasko jokoa egin ohi dute gazteek. Adunan ezezik Zizurkil, Amasa, Sorabilla, Goiburu eta baita Larraulen ere ohitura horri jarraitzen diote oraindik ere.

Ohitura urteetan eten ez bada ere, izan ditu zenbait aldaketa. Lehengo ohitura zaharra zen herriko mutil koadrila goizean goiz, trikitilari eta txistulariez lagunduta, oilasko edo diru eske herriko etxe eta baserri guztietara joatea. Ondoren oilaskoak makil batetik zintzilik jarri eta herrira joaten ziren. Plazan bildutako oilaskoak kaxetan sartzen zituzten burua baino agerian ez zutela. Hamaiketakoak egin ondoren ekiten zioten dantza berezi bat eginez ezpata zorrotzez oilaskoak akabatzeari. Ondoren nesken laguntzarekin soka-dantza egiten zuten eta aurrekua amaieran. Arratsaldeko soka-dantza-ren ondoren, jai eguna iluntzeko oilasko janarekin burutu ohi zuten.

Gure egunetan, ordea, ohitura mantentzen bada ere, zenbait aldaketa izan ditu: lehen mutilak bakarrik joaten ziren oilasko bila. Dantza-soka bera ere urte batzuetan ez da dantzatu, lehen jaiaren ekitaldirik garrantzitsuena izan arren.

Azkenengo urteetan dantza egin da baina gehienek lehen askoz gehiago ahalegintzen eta hobeto prestatzen zutela uste dute. Eta diruari dago-kionez, lehen gazteak beraiek omen ziren euren patriketatik jaia gehienetan ordaintzen zutenak.

Bada gainera, urte batzuetan gazteek hartu zuten ohitura xelebrea: oilaskoak horzka akabatzea, alegia. Jokoa 15-30 urte bitarteko gazteek hartu ohi dute parte, eta Jabier Zabala alkatearen esanetan gehienek jaiak lehen zuen zentzua, erritual zentzua, ez dute ezagutzen: "Oilaskoak akabatzeak dantza eta musikak bezain besteko garrantzia zuen, orain berriz, gauzarik nabariena bilakatu da". Jaberren esanetan urte batzuetan gertatutakoa: ETB ikuskizuna grabatzera etorri zenekoa gogoratzen du: lotsagarria izan zen, astakeria galantak egin

baiteziren. Bera ez da ohitura kentzearen aldekoa, baina, noia-bait ere, findu egin beharko litzatekeela uste du. Inoiz Udalak gobernadorearen gutuna ere jaso omen du horrelako ekintzak ez egitea ahoikatu, "dena den, zezen korridak existitu bitartean, guri horrelakorik esatea ere hipokrita samarra iruditzen zait" dio.



Ezpata zorrotzak prest



### ZATOZ JALETARA !!!

*Adunako Udalak eta herritarrek jai zoriontsuak opa dizkizue*



# Herriz herri

## Burdin aroko etxeak aurkitu asmoz

### Andoaia

Hiru astetan jardun ondoren beste astebetez luzatuko dira oraindik Buruntza mendian egiten ari diren indusketa lanak. Lehen aurkitutako aztarnei jarraituz hirugarren urte honetan aurkikuntza berri eta garrantzitsuak egiteko asmoa daukate, burdin aroko etxebizitzak edota beraien aztarnak aurkitu nahi dituzte, alegia. O-raingo honetan ere bi hamabostalditan banatuta hamar lagun arituko

dira lanean, Aranzadi Zientzi Elkarte kide den Karlos Olaetxearen zuzendaritzapean.

1988. urtean aurkitu zuten Fuerteko Zabala deituriko tokian kastroa, hau da burdin aroko herriska. Herriskaren aztarnak orain dela 2.500 urtekoak dira, justu-justu erromatarrak iritsi aurretikoak. Karlos Olaetxeak adierazi digunez garai hartan hasi zen populazioa lautadetatik mendi eta beste leku babestuagoetara joaten.

Aurkikuntza horrek garrantzi handia izan zuen, izan ere ordura arte Gipuzkoan garai bereko beste aztarnategi bat baino ez zen ezagutzen. Tolosako Intxurrekoa, alegia. Geroztik beste batzuk aurkitu dituzte, eta gaur egun Oria ibaiaren arroan lau ezagutzen dira. Aipaturiko aurkikuntzak suposarazten die zientzilariei Oria ingurua indoeuropearren pasabidea edota egonlekua izan zitekeela garai batean, jakin badakite eta, gune ga-

rrantzitsuenak Ebro ibaiaren inguruan daudela, baina lehen Orreagatik pasatzen zirela ziurtzat jotzen bazuten ere, orain bestelakorik ere pentsa daiteke.

### Gaurko txabolak bezala

Egun indusketa lanetatik ateratako 45 pieza daukate sailkatuta: zermika apaindua, ontzi, burdin, brontze puskak, suharrak... Oraingo honetan berriz, aurrerago egin nahi dute eta burdin garaiko etxeen aztarnak aurkitu nahi dituzte. Etxeen aurkikuntzak agerian utziko luke, garai hartako kastroak zirela lehenengo hiri antolatatuak. Beste aztarnategi batzuk miatuz jakin izan dute orduko etxeak, egungo etxolak bezalakoak zirela, harrizko oinarria zuten eta lauki zuzenak ziren. 8m inguru zuten luzeran eta 3-4 zabaleran. Halere, badakite harkaitzak moztuz ere altxatzen zituztela etxetako hormak, zoruak harkaitzen hondarrarekin estali eta gainerakoa egurrez eraiki. Horrelako etxeak izanez gero, aztarnarik aurkitzea zailago izango litzateke, egurra galdu egiten baita.

Hirugarren indusketa lan hauek bukatu ondoren Oria arro osoan aurkitutako materialen erakusketa egiteko asmoa daukate, eta baita hitzaldiak antolatzeko ere, hau guztia u-dazkenean izango da.



Indusketa lanak

Une honetan Buruntzako aztarnategia Andoaingo Udalak babestuta dago eta horrela azaltzen da bere Arau Subsidiarioetan, halere, eta Karlosten esanetan, andoaindarrak beraiek dira tokia zaintzeaz arduratu behar dutenak, "beraien ondasuna aurkitutakoa bildu, sailkatu, txukundu eta San Telmo museora eramango dute, ondoren etorriko dira memoriari egin, dirulaguntzak eskatu eta erakundeetako ateak jo beharrak hurrengo urtean beste behin ere indusketak egiten jarraitu ahal izateko.



# Zabala

## Ordukari Bitxitegia


Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



# ALOTZ

## IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN



## Zaharren behar eta eskariei begira

# Asteasu

Bi lagun bizi dira une honetan Gainberri etxean, bata larrauldarra izatez, Adunakoa bestea, hala ere aspaldidanik bizi dira Asteasun. Udalak beregain hartu zuen babes ofizialeko etxea da Gainberri, kasu batzuetan hirugarren adineko pertsonen bizileku. Dena den, Gainberri egun ez da nahikoa dauden beste zenbait zaharren eskariei aurre egiteko, horregatik ekin dio Udalak hiltzaren zeneko etxea egokitzeari.

1987an alokatu zuen Udalak Gainberri. Garai hartan bi pertsona zeuden larrialdian herrian, bizitoki egokirik gabe. Udalak beregain hartu zuen orduan bizitokia eskaintzearen ardura. Beste etxerik ez zuenez honako hori alokatu behar izan zuen. Toki mugatua izan du hasieratik Gainberrik, hiru lekua, eta Udalak hartu duenetik, beti bizi izan da norbait bertan, arazo bat edo bestea dela medio. Bertan biziko diren eurak bakarrik moldatzeko gai izatea eskatzen zaie. Elbarriz gero, beste era bateko etxe batera joan beharko lukete. Asteasutik kanpo.

Nekane Zubizarreta gizarte laguntzaileak eta Begoña Gil laguntzaileak diotenez hirugarren adinekoen eskaria gero eta handiagoa da: "Baserrietan zahar asko daude bakarrik, eta batzuk oso egoera tamalgarrian, urik edota komunik gabe adibidez". "Gainberri bezalako etxeekin zaharrei kanpora joan gabe herrian bizitzen jarraitzeko aukera eskaini nahi izan zaie, eta batez ere duintasunez" azpimarratzen du Begoña.



Juan Alustiza eta Joxe Mari (Kamio)

### Esperientzia pilotoa

Hiltzaren zeneko etxeak oso funtzio berezia izango du aurrerantzean. Aldi berean hirugarren adinekoentzat etxe babestua, larrialdietarako bizilekua eta edozein talde edota pertsonarentzat ere izango da bilgune. "zentru ireki eta integratzailea izango da" dio Nekane. Beheko solairuan, jangela, egongela eta sukalde txiki bat egongo dira eta bertan zaharrek nahiz arazo sozial-ekonomikoak dituen beste edonork bazkaldu ahal izango du. Zahar elbarrituak ere bazkaltzera, lagunekin egotera edota denbora pasa ere bertara joan ahal izango dira. Bertaraino joateko, bono-taxi zerbitzua izango

dute eta baita herriko bolondresen laguntza ere. Bolondresak biltzeko "Kalean ondo moldatzeko" deituriko kanpainarako deialdia egin du dagoeneko Udalak. Honez gain edozein herritar bildu ahal izango da bertan "herriko jendearen harremanak estutzea eta elkar ezagutzuz aberastea nahiko genuke" diote.

Bigarren solairuan lau logela, bi bikoitzak eta beste bi banakakoak, eta egongela bat egongo dira. Baina zaharrak ez dira bertan isolatuta biziko, izan ere beheko solairuan dauden beste zahar eta gazteekin harremanak izatea da etxea horrela eraikitzearen helburua. Hirugarren solairuan beste bi banakako logela eta larrialdetarako apartamentu bat izango da.



## XIXORI

### BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA


Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

## OLAZABAL

### ITURGINTZA

BEROGAILUEN INSTALAZIOA  
UR BEROA  
ITURGINTZA  
E-G IV GASA

J.Larreta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66  
ANDOAIN



# Herriz herri

## Gurea zinema berria

### Billabona-Amasa

Nork ez ditu gogoratzen txikitari zinematik ikusitako pelikula? Cantiflasekin igarotako igande arratsaldeak? Edota lagunartean egindako barrantak?

Denbora askotxo pasa da igande arratsaldeak Gurea zinematik igarotzen genituenean. Eskualde osoan zinemarik gabe egon gara azken urteotan. Dena den, parentasi horrek badu amaiera. Herriko jaietarako, uztailaren 25erako iragarri baita Gurea zinema berriaren inaugurazioa.

### Eliza eta Udalaren arteko akordioa

Zegoen egoeratik berreskuratzeko eta nolabaiteko probetxua ateratu asmoz, zinemaren jabe den Elizak eta Udalak akordioa sinatu dute. Akordioan zehazten denez Elizak 25 urtetarako utzi dio Udalari aretoa. Trukean Udalak lehen proiektio gela zen lekuan lau gela egin ditu, katekismorako izango direnak, hain zuzen.

Proiektio gelarena ez da zinemaren dagoen aldaketa bakarra.

Eserlekuen kopurua ere aldatu da. 400 eserleku baino gehiago izateko 312 eserleku izatera pasa da. Egindako seguritate sarrerek eserlekuak kendu dizkiete zinemari. Era berean antzerkietarako eta zinemarako baliagarria den antzeztokia nahi izan du Diputazioak. Modu honetan 82 metrotara handitu da antzeztokia eserlekuen kopurua murriztuz.

Erakusketa gela bigarren solai-


ruan egongo da. Bertara igo nahi duten ezinduentzat igogailu berezia dagoelarik. Parke aldera egindako anpliazioak, besteak beste, komunak eta kamerinoak egiteko balio izan du.

Amaitzean dagoen berrikuntza lan horren kostua 127 milioitakoa da. Dirutza honetatik Diputazioak 50 milioi eman ditu dirulaguntza gisa. Gainontzekoa Udalari dago, kreditu bitartez ordainduko dena.

### Aurrera begira

Uda amaitzen den arako zinema martxan eduki nahi du Udalak. Honetarako iadanik onartuak ditu zinemaren esplotazio zinematografikorako oinarriak. Aukeraturiko enpresa pelikulak proiektatzeaz arduratuko da, gainontzeko egunetan beste motatako ekitaldiak egongo direlarik. Modu horretan eta enpresak emango duen diruarekin zinemaren mantentzearen gastua ziurtatu nahi du Udalak.

Agosti Garmendia



Aretoa izan dira dagoeneko lehenengo saioak.

**VAC VAC** **HOL - ATZ**  

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN  
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, 7/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
BILLABONA

 **ER. NI OBIDE**  
JUAN CARLOS ARICETA

**ZURGINDEGIA**


**-Erreformak oro har**  
**-Neurrira egindako armairuak**

Agaraitz auzoa, 7/g - ☎ eta Faxa 69 26 75  
BILLABONA



# Herriz herri

## Iritsi dira San Estebanak



**LARRAUL**

Astlehenean emango zaie hasiera Esteban Deunaren jaiak. Hurrengo asteburuan ere larrauldarrek izango dute, hala ere, zer ikusi eta zertan parte hartu. Jaiak antolatzerakoan Berastegi, Altzo eta inguruko beste herrietako jaiak ere badirela hartu dute antolatzailiek kontuan "horregatik gauza handirik ere ezin da antolatu" esan digute, hala ere, bertakoentzat eta uda aldean izaten diren kanpotar urrientzat egitarau erakargarria antolatzen saiatu dira. Oporrei bukaera emateko, hilaren 24ean Bartolome Deunaren eguna ospatuko dute.



Garai bateko jaiak

Herriko gazteak izan dira aurten ere jaiak antolatu dituztenak aurreko urteetako egitarauari jarraituz: astlehenean goizeko 11etan herri meza izango da, herriko zaharrei hamaiketako eskainiko zaie ondoren. Gero gaztetxoek zaku karrerak, aulki jokoak eta beste joku batzuetan parte hartzeko aukera izango dute herriko bi trikiti bikote gazteek alaituta. Gaueko 9etan herri afaria, eta ondoren goizaldera arte Joseba Iparragirre eta bere taldearekin erromeria.

Larunbatean gau aldean izango dira bi ekitaldi nagusiak: bertso jaialdia gaueko 10.30etan Eztitxu Arozena, Maialen Lujanbio, Iñaki Murua,

Unai Iturriaga eta Iokin Sorozabalekin. Gai jartzailea Jesus Mari Irazu izango da. Ondoren Maixa eta Itziar trikitilarien saioa.

### Asteasu eta Larraul aurrez aurre

Igandean goizeko 11etan meza nagusia izango da. 12etan gazteen arteko pilota partiduak. Arratsaldean haur eta helduek titiriteroen saioaz gozatu ahal izango dute. Arratsaldeko 4etan III. mus txapelketa izango da eta zazpietan Larraulgo gazteek batetik, eta ezkonduak bestetik, beren indarrak neurtu beharko dituzte trontzan, korrika, segan, lokotxak biltzen, zakua eramaten eta harria jasotzen. Jaiak

Jokin Azkonobieta trikitilariak emango die amaiera.

San Bartolome egunean ere izango da jai giroa herrian: gaueko 10etan sei dantzari eta sei trikitilari bikoteen saioa. Ondoren Martin eta bere taldearekin erromeria goizaldera arte.

**OHARRA:** Abuztuak 3an garai batean herrian maistra izan zen Angelines Martin izango da. Ongi etorria emateko gauean afari bat antolatu da. Udalak dei berezia egingen die herritar guztiei afarira bil daitezen. Horretarako beharrezkoa da txartelak aldeztu aurretik erostea. Herriko ostatuan daude salgai.

### HERRI OSTATUA



Taberna  
Jatetxea

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA  
**ZABALAGA TAILERRAK**

Anta Kandiata Etorbidia, DENAC Poligonoa, 205. Pabeleja  
Telefona 30 01 69 - ANDOAIN

## URBIETA ANTIAK GARRAIOAK


### GARRAIOAK ORO HAR

-Ganadu, txirbil, zerrauts, lasto eta baserrirako behar duzuna  
-Bolketea eta grua duten kamioiak ditugu

### KALITATEZKO SU EGURRA

-Neurrira moztuta eta urte osoan  
-Haritza eta pagoa  
-Etxerainoko zerbitzua

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL



# Herriz herri

## Ezezkoa Bakea Orain taldearen proposamenari

**ZIZURKIL**

Ekainaren 27an eginiko Udal Batzarrean ezezkoa eman zitzaion Bakea Orain taldeak mozio bitartez aurkeztutako proposamenari. Azken 25 urteotan indarkeriak eragindako biktimak guztien oroitzapen gisa, plaza, lorategi edo kale baten izena edota oroitarri nahiz plaka bat jartzea proposatu zuen taldeak.

Bakea Orain taldeak indarkeriaren erabilera gaitzetsi asmoz eta tolerantzia bultzatu nahian proposatu zuen ekimena, indarkeriak eragindako biktimak omenduz. Udal Batzarrean buruturiko bozketan ezezkoa jaso zuen ekimenak

Herri Batasunaren kontrako lau botuen laguntzaz. Eusko Alkartasunaren aldeko bi botoak jaso zituen proposamenak eta baita PSE-EEren aldeko bakarra. Aipatzekoa da EAJ eta EuE abstenitu egin zirela. Herri Batasunak bootoaren azalpen gisa Udal Batzar batean hartutako erabakia gogorarazi zuen.

### Proposamen berri bat

Aipaturiko Udal Batzarrean Gernikari plaza bat eskaintzea erabaki zen, ondoren non Gerniko Arbolaren kimu bat landatuko zen. HBk erabaki hori gauzatzea pro-



Udal Batzarra

posatu zuen, gaurdaino ez baita ezer egin erabaki horren inguruan.

Bestalde, HBren esanetan indarkeriak eragindako biktimak ez dira azken 25 urte hauetakoak soilik, aspalditik egon baitira biktima eta zapaldu ugari Euskal Herrian. Beraz, Gernika izena erabiltzea proposatzen du Euskal Herriko bakea eta askatasuna lortu asmoz bizitza galdu dutenen izenean. Erabaki hori gauzatzeko une egokia iritsi bezain laster, ekingo zaio Gernikari eskainiriko plaza eraikitzeari.

Ainhoa Oiertzabal

# Liraua

**KIROL JANTZIAK**

Ama Kandida etorbidea, 6  
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47  
ANDOAIN

**HERCULES**  
*Aseguruak ARGENTARIA*  
*Amaia Kortajarena*  
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34  
**ZIZURKIL**



**ZUBi**  
**AUTO ESKOLA**

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

# ANTZOLA, S.A.

**Aroztegia**

AROZTEGI MEKANIKOA  
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK  
BARRUKO ATEAK  
LURRAK  
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK  
MOTA GUZTITAKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA. 126 - ANDOAIN

Mundutik etorri dira geure artera. Bost kontinenteetatik. Bihotzak ekarri ditu batzuk; beharrak -behar gorriak- zenbait; eta kasualitateak bat edo beste. Geure artean txoko bat egin diegu guztiei, eta eskertuta daude oso horregatik. Hemen

biziz gero, integratu beharra dagoela sinestuta daukate guztiek, eta asmo horren lekuko jartzen dute hizkuntza. Txukun egiten dute euskaraz batzuek, eta gure hizkuntzan mintzatzeko ahaleginak egiten ari dira gainontzekoak.



## United Colours of Beterri

Geure artean bizi diren atzerritarrak bildu ditugu, kontinente bakoitzeko bana.

Uztaileko egun sargori batean bildu genituen guztiak aldizkarirako argazkiak ateratzeko. Bazkalosterako jarria genuen hitzordua, eta apurka guztiak heldu ziren agindutako moduan. "Kaixo, bero dago eh?" batek. "bai, hobe hemen itzalean" besteak. Eguraldiak eman zien euren artean hitz egiten hasteko aitzakia. Baina eguzkiak egun hartan zuen indarrari buruzko komentarioak agortu orduko hasi ziren elkarri nongoak ziren, hemen zer egiten zuten.... kontatzen.

Mesta irandarrak eta Maurok ezagutzen zuten elkar lehenagotik ere. Maurori ere ezaguna zitzaizkion Nabila eta Mohamed txikia, eskaratz berdinean bizi baitira italiarra eta marokkiarrak. Gainontzekoek ez zuten elkarren berri baina harremanak sakontzeko aukera izango dute aur-

ki: Mesta hasi berria da euskaltegian, eta datorren urterako Zeelanda Berriko Roger eta Rolando kubatarra gehituko zaizkio gure hizkuntza ikasteko ahaleginetan.

Azterriko lagun ugari da gure artean. Erreportaia prestatzen hasi ondoren, batzuekin eta besteekin hitz egin eta zerrenda ikaragarri luzea osatu dugu. Ez genuen hainbesterako espero. Batzuen atean jo dugu gurekin solasalditxo bat izan nahiko luketen proposatzeko. Ezezko erantzuna eman digute askok, baina baiezkoa argazkiak bildu dituen guztiek.

Milaka eta milaka kilometro bereizten dituzte curen jaioterriak. Oso bizitza ezberdinak egin dituzte curen jaioterrietan, baina hona etorrita, jende antzekoarekin egin dute topo, kultura berearekin.... eta zailtasun berdinekin.

### Munduko baztarretatik etorriak

Ondo gogoan du Nabila-ren aitak noiz iritsi zen hona. 1969 urteko maiatzaren 4a zen. Malagatik barrena, Bartzelonara iritsi zen Ahmen Amed bezperan, eta taxi gidari baten aholkuak jarraituz. Santanderreraingo heldu zen han lana soberan zegoelakoan. Baina hara iritsi bezain laster maleta guztiak lapurtu ez zizkioten ba! Soinean jantzia zuena, eta poltsikoan xoxa gutxi batzuk baino ez. Beste guztia lapurrek eramane zuten. Sake-lan gordeta zituen txanponekin Donostiarako autobusa hartu zuen. Han hasi zen lan eske, eta Andoaineraingo iritsi zen hala.

Lau seme-alaba dituzte Ben Altarrek. Guztiak jaio dira hemen, Nabila, senideetan bigarrena, izan ezik. Urtero joaten dira jaioterrira, Tange-



Nabila bere anai-arrebekin

rrera, eta hara uda batean egindako bisitaldian jaio zen Nabila. Udako oporrak prestatzen ari zirela harrapatu genituen geuk ere. Joan den igandean abiatu ziren Tangerang aldera. 18 orduko bidaia luzea zuten aurretik, baina familia ikusteko gogobete zuden artean, karreteran egin behar zituzten ordu piloari garrantzi handirik eman gabe.

Ahaideak ikusteko irrikitan dagoela azaldu digu Nabilak oporretaz hitz egiten hasi orduko. Nabila euskaraz mintzo da, euskara txukun eta garbian. Eskolan ikasi du euskaraz, baina liburu artean hasi aurretik ere trebatua zen euskaraz, hura baitzen parkeen auzotarrek zuten hizkuntza.

Azkarra da Nabila. Bizi-bizia, azkar heldutako haurra. Gazte-gazte-tandik zaindu behar izan ditu anai-arreba gazteagoak, eta txiki-txikia zela uzten zuten gurasoek bakarrik eurak merkatuan lanean ari ziren bitartean. Lanbide hura, baina, utzi egin behar izan zuten, salmentak ez baitzuen udaletxean ordaindu behar zuten beste ematen. Orain aitak errelebotan lan eginez Inquitex-en irabazten duen soldatarekin bizi behar dira etxeko seiak. Hemen pertsona onak topatu dituztela azpimarratu nahi izan du Nabilaren aitak. "Arrazakeriarik?" galdegin diogu. "Arrazistak kanpokoan arrazarekin ezezik, euren arrazakoentzat ere jende txarra dira" arrazoitu digu Ahmen Amedek bizkor.

**“ Euskara ikasita edo ikasteko ahaleginetan ”**

Ben Alitarrak beharrak ekarri zituen geurera. Beharrak bul-tzatuta etorri zen Mesta ere. Mesta Iraneko ipar-ekialdean jaio zen Ulmiyeb izeneko herri txiki batean. Baina urte gehienak hiriburuan eman zituen, Teheranen. Iranen iraultza islamikoaren garaia zela -“beno

iraultza esateko modu bat da” zehaztu du Mestak- Alemaniara egin zuen bidaia ikasketak aitzaki hartuta. Arnas hartu nahi izan zuen Mestak atzerian.

Baina Alemaniara iritsi eta oso gutxira, “bahituen krisia” lehertu zen Iranen. Ikasle islamiar talde bat Teheranen Estatu Batuek duten enbaxadan sartu zen eta indarrez hartu zituzten bertan zeuden lagunak. Krisi diplomatiko latza sortu zen herrialde islamista eta Estatu Batuen artean. Alemaniak aliatuak Washinton-go gobernuarekin bat egin zuen, eta bota egin zituen bere herrialdetik bertan bizi ziren irandar guztiak. Mesta haien artean.

Kataluiniara iritsi zen eta Bartzelonako metroan berak egindako gerrikoak saltzen hasi. Baina horretarako ere baimenak behar, eta Mestak izan ez. Polizia maiz etortzen zen, eta



Mesta irandarra

hura ikusi orduko salgai zituenak bildu eta laster batean, hanka handik!

Handik iritsi zen Euskal Herrira. Andoain lehenengo etxea du harrez gero. Iranen duen familia maizago bisitatu nahiko lukeela aitortu digu, baina oraingoz ez duela hara itzultzeko asmorik. Izugarritzko aldaketa da: “Ni handik irten nintzenean iragartzen zitzaion giroari tankera itsusia. Erregimen erdi poliziala da, eta kontrola ikaragarria”. Bere neskalagunarekin -euskalduna da Eli- jaioterrira itzuli nahi izango balu gainera, lege islamiarren arabera ezkontzera behartuko lituzkete.

### Marokkora bidean hemen geratua

Oso modu bestelakoan etorri zen Mauro hona. Torino jaioterritik gure artera nola heldu zen galdetu diogu, eta “baina, zer nahi duzu egia esatea edo...?” galdegin digu segidan. Guk berak esandakoa idaztea beste erremediorik ez dugula adierazten diogu, eta haren ondoren hasi zaigu azalpenak harrapaladan botatzen.

### “ Maitemindu egin nintzen honetaz ”

Orain lau urteko San Sebastian eguna zen, “benetan, Marokkora nindoan” aitortu digu -oraingoan serio antzean-. Andoain parean arazoak izan zituen trenak, eta jeistea erabaki zuen. Taberna batera sartu, patxaran batzuk edan, eta bertako jendearekin hitz egiten hasi zen. “Hala maitemindu nintzen honetaz”, azpimarratu du.

Gustora dago hemen: integratuta dago erabat, eta parranda egitea horretarako oso bide egokia dela dio. “Denetatik ikusi eta ikasi behar da..., baina, aizu, zuk nola dakizu parranderoa naizela ni?” Ikerketa kazetari-tza.

Eta euskaraz? “Desastre” erantzun digu. Saiatu zen Mauro euskaltegian. Urte bete eskas egin zuen bertan, eta txukun aritu zen, “irakaslea erotu nuen baina”. Istorio bat eta beste, alferkeria..., utzi egin zuen euskaltegia. “Zerbait ulertzen dut, baina gu-txi”, aitortu digu penatu antzean.

Andoainera iritsi zenetik ez du ba-



Mauro italiarra

tere zailtasunik izan, ez lege aldetik, ezta lanari buruzko arazoetan ere. Altzari zaharrak eraberritzen aritzen da bera, eta italiarrak lan horretan oso iaioak diren sona dute hemen.

### Bihotzak ekarritakoak

Ia kasualitatez jaio zen Roger Erresuma Batuan. Gurasoak Zeelanda Berritik Europara etorri berriak ziren, eta Roger jaio eta gutxira itzuli ziren berriz ere hara. Zeelanda Berrian hazi zen Roger, eta han egin zen irakasle”.

Baina herrialde hartan bizi direnek lotura handia dute Europarekin. Izan ere, lauzpabost belaunaldi besterik ez dira kolonizatzaileak Australia eta Zeelanda Berriko lurretara iristen hasi zirena. Horregatik edo, oso arrunta izaten da han ikasketak amaitu eta “oversea experience” moduan (itsasoz bestaldeko esperientzia) Europara etortzea.

Hala iritsi zen Roger Erresuma Batura. Dirurik ez zuen apenas poltsikoan, baina beharra gorria. Hotel batean kamarero gisa bilatu zuen lana. Garagardo eta cocktail artean ari zen egun bere emaztea dena. Blanqui, ezagutu zuenean. Blanqui ingelesa ikastea joana zen hara, eta hura ere lan eskean, hoteleko ugazabarekin hitzordua jarria zuen. Roger limoi baten bila sukaldera hurbildu zen, eta han ikusi zuen bere emazta lehen aldiz.

Ingalaterran ezkondu ziren. “Eta orain nora?” galdegin zioten elkarri.

Bi aurkera zituzten eskuartean: Andoain ala Zeelanda Berria. Lehengorantza egin zuten, eta hemen bizi da Roger orduz gero. The Tolkien Academy-ko zuzendaria eta ingeles irakaslea da bertan. Baina ikasle ere bihurtuko da aurki, euskaltegian has-teko asmoa baitu kurtso berriarekin batera. Bi aldiz aitatu da Roger. Joshua txikia eta Lian ditu seme, eta haiekin etxean ingelesez hitz egiten duen arren, eurekin batera aritzeko euskara ikasi beharra daukala jabetu da Roger. Eskolan euskaraz hitz egiten dute biek, eta askotan aitari euskal hitzak tartekatzen dizkiote egun horretan ikasitakoa azaldu nahi diotenean.

La Habanan jaio zen Rolando, baina txiki-txikitan eraman zuten gurasoek Venezuelara. Iraultzaren ondo-



Roger Erresuma Batuetan jaioa

ren, 1959an, jaioterrira itzuli zen Rolandoren familia. Unibertsitatean nekazal eta abeltzantza ingenieritza ikasi zuen. Baina ez zen harekin asetu. Ingeniari bihurtuta, ikasten jarraitu zuen, giza zientzien arloan. “Eta orain hemen nago”, adierazten digu bere curriculum zabala apal-apalean azaldu ondoren.

### “ Maitasunak baditu bere distantziak ”

Kuban ezagutu zuen egun bere emaztea duena. Oporretara joan zen hara, eta Rolando ezagututa ahal zuen


guztietan egin zuen berriz ere Kubarako joan-etorria. Maitasunak distantziak hausten dituela esaten da, baina elkar ikusi behar zuten bakoitzean Atlantikoa gurutzatzea gehiegitxo zen. Jaitoerria askotan botatzen du faltan, eta huts hori asetu beharrean edo, itsasoz bestaldera gertatzen denarekin harreman estua mantentzen saiatzen da hemendik.

Jaioterriarekiko hain desberdina den herri batean hemengo ohiturak, hemengo bizimodua ikasi eta integratzea beti ez da erraza izaten. “Baina ondo daokit” aitortu digu. Ez du bestelako arazorik topatu. “Arazo larriena hemen dagoen lan eskasia da”, zehaztu du Unibertsitatean lortutako tituluek lanik aurkitzen ez diotela lagundu zehaztuta.

Bertako jendearekin ere ez du btere arazorik izan. “Zoragarria da hemengo jendea”, azaldu du, baina Balzac-en “Giza Komedia” liburuak biltzen duen moduan, leku guztietan jende ona eta txarra dagoela gogorazi digu jarraian.

Euskaraz? “Ez dakit” erantzun digu penatuta. Baina irailan buru-belari ekingo dio euskaltegian. “Herri batean integratu behar badut, bertako hizkuntza ezagutu behar dut. Fun-tsezkoa da hori. Zaila da baina saituko naiz” gaineratu digu.

Jone Larrañaga



Rolando kubatarra

ANDOAIN

## “Toponimoek hizkuntzaren ezaugarriak eta herrien historia gordetzen dute”

Amaia Usabiaga beasaindarrak “Andoaingo Toponimia” liburua plazaratu berri du.

Makina bat izen bitxi dago herrian. Guztiak erabat arruntak zaizkigu gaur egun, erabilerak ohizkoak bilakatu baititu. Baina, izen horiek jatorria non duten galde egin al diogu inoiz geure buruari? Galde egin ala ez, “Andoaingo Toponimia” liburuari esker,

gertuagotik ezagutuko ditugu Andoaingo zokoan nahiz etxean izenak, baita sasoi batean erabili eta egun galduta daudenak ere. Bestalde, Euskaltzaindiak kaleratutako “Onomasticon Vasconiae” bildumako hamargarren alea da argitaratu berri den liburu hau.

**AIURRI:** Noiz hasi zinen Andoaingo toponimiaren bilketa egiten?

A. Usabiaga: Euskal Filologiaren ikasketak 1988. urtean amaitu nituen. Udazkenean, Andoaingo Udalak iragarki bat ipini zuen egunkarietan, eta horrela hasi nintzen lanean. 1989. urtean ekin nion toponimia bilketari.

**A:** Zenbat denbora eman duzu hori egiten?

U: Gutxi gorabehera bi urte igaro ditut toponimoak biltzen, eta beste urtebete argitalpena eta mapak prestatzen.

**A:** Toponimo bilketa egiteko kaleak, baserriak eta soroak bereiztu al dituzu?

U: Bi eremu bereiztu ditut, hau da, kalea eta landa. Eremu bakoitzean metodologia antzekoa erabili dut, baina helburua ezberdina izan da bakoitzean. Kaleko toponimoak jasotzerakoan kontuan izan behar da bai kaleak bai etxeak asko aldatu direla, eta beraz, gaur egungo erabilerak jasotzean zein joera zeuden ikusi behar da: izen ofizialak egon arren, jendeak beste izen batzuk erabiltzen baititu batzuetan, bai izen hori zaharragoa delako bai berriak sortu direlako. Horiek jasotzea izan da helburu nagusia, izan ere, kalean toponimo zaharrak badaude, baina noski, izan den aldaketa hori dela medio, zaila da horiek kokatzea. Gainera, informatzaile onak topatzea,

andoaindarrak eta zaharrak alegia, ez da batere erraza. Kalcan, beraz, gaur egungo erabilerak jasotzea izan da helburua.

Landari dagokionez, garai bateko eta gaur egungo erabileran aldeak dago, toponimo batzuk ahaztu egin dira eta. Dena den, garai bateko izenak bizirik daude: ibaiak ez dira aldatu, mendien izenak hor daude, eta basoenak ere bai, nahiz eta jabez aldatu edo garai batean pagadia zena pinudi bilakatu. Hots, izenak ahaz

daitezke, baina zailagoa da izen bera aldatzea. Ondorioz, berreskuratze prozesu bat egin dut landaren eremuan, izen horiek ez baitzeuden inon jasota. Horixe izan da helburua, ahaztuta zeuden izenak berreskuratzea.

**A:** Urteen joan-etorriaren poderioz, kaleko ala landetako izenak galdu dira gehiago?

U: Landetako izenak ahozko transmisioaren ondorioz eraldatu dira, batipat. Hori, ordea, asko gertatu da euskarari: hizkuntza idatzia finkatu artean, hitz egiteko orduan, aldatu egiten baitira hitzak. Haatik, kaleko toponimoak galdu egiten dira zuzenean, etxeak desagertzen direnean edo soro batean etxe asko eraikitzean toponimoa galdu egiten da, baita tokia ere.

**A:** Zailtasunik topatu al duzu?

U: Zailtasunik handiena kokapena izan da. Toponimoa kokatzea, alegia. Bizirik dauden toponimoetan ez dut arazo handirik izan, informatzailea ona izan bada bederen. Landen toponimiak bilatzerakoan, ordea, informatzaile ona topatu dudana arren, adin dexentekoa da eta ezin du jada basora joan, edo baserrian egiten du lan eta ezin du zurekin joan halako lekua erakustera. Gainera, gaur egun, alde guztietan pinua sartuta



Amaia Usabiaga

dagonez eta baserri asko hustu egin direnez, zaila da erreferentziak izatea. Zenbait leku kokatzea nahikoa erraza egiten da, baina pinuz jositako maldan daudenak kokatzea ikaragarri zaila da. Hau da, izena eduki bai, baina kokatzen ez da erraza izaten batzuetan.

**A: Zertan oinarritu zara lana egiterakoan. Zein iturri erabili dituzu?**

U: Gehienbat Udal artxibategira mugatu naiz, herriko dokumentazio ugari baitago. Bestalde, klase guztietako dokumentuetaz baliatu naiz, izen ugari zituzten dokumentuak aintzat hartu nituen.

## **“Puente de las brujas” esaten zaiona Unanibiko zubia da eta Ankoras kalea, Aingurasutegi**

**A: Toponimo bitxirik topatu al duzu?**

U: “Puente de las brujas” bezala ezagutzen dugun zubiaren izen jatorria ez da hori. Inguruko baserriar guztiek Unanibiko zubia izenez ezagutzen dute. Dena den, azken hauek jakin badakite kaletarrok “Puente de las brujas” gisa dugula ezaguna, eta beraz, jatorrizko izena galtzeko zorian egon daiteke, haiek ere erabilera nagusia den horretara makurtzea gerta daiteke.

Kaleko toponimoei dagokienez, bestalde, Ankoras kalea azpimarratu behar da. Inguruko zaharrek Angusatei esaten diote kalcarri. Berez, Aingurasutegi da; hau da, aingurak egiten ziren tokia. Baina ahozko erabileran Angusatei deitzen zaio. Denboraren ondorioz, latinerako hitza nagusitu da. Kasu honetan hizkuntz aldaketa gertatu da, latinezko “ancora” hartu baita. Dena den, jatorrizko izena ez da galdu. zaharrenak oraindik oroitzen baitira garai batean Angusatei izenez ezagutzen zutena.

Era berean, badago leku bat “Malo” izena eduki eta istorio bitxia duena. Behin batean, Napoleonen gudalostea leku hartatik igaro omen

zen. Toki hori maldatsua da eta haitz solte ugari dago. Inguru horretatik zihoala, Napoleonek gora begiratu eta “Malo” esanez zaldia gerarazi omen zuen. Hortik ei dator izen hori.

**A: Bestalde, Venezia eta tanke-rako izena duten etxe ugari dago. Jakin al daiteke, izen hori nondik datorkien?**

U: Honelako izena duten batzuk daude, eta baita Pekin, Babilonia eta Londres izena duten etxeak ere kalean. Horiak modaren eragina dira. Baina Zumea kalean bazegoen etxe bat “Portugesanea” izenekoa, eta kasu honetan, seguru aski portugaldarren bat biziko zen noizbait eta horregatik du izen hori. Baina, beste kasuak modaren ondorioa besterik ez dira. Gainera, hau ez da Andoaingo fenomeno, Gipuzkoa eta Euskal Herri osokoa baizik. Alde guztietan aurki daitezke honelako izen bitxia duten baserriak edo etxeak.

## **Ofizioak, goitzenak eta adiera mitologikoak**

**A: Toponimiak zerbait argitzen al du Andoaini buruz?**

U: Toponimoak fosil baten moduko zerbait dira eta fosil horretan ez da bakarrik hizkuntzaren ezaugarria gordetzen, baita herrien historia ere. Andoaingo toponimia aztertuz gero, garai bateko basoetan zer nolako zuhaitziak ziren nagusi jakin daiteke, eta baita, soroetan nagusiki zer aldatzen zen ere. Era berean, etxeetako ofizioak aztertu, eta bertan bizi zen pertsonak zein lanbide zuen jakingo dugu. Adibidez, zuhaitzetan pagoa nahiz harritza nabarmentzen ziren beste guztien gainetik Andoianen: soro izen askok, bestalde, sagastia dute oinarri gisa, nahiz eta dokumentuek zehazten dutena-



Unanibiko zubia edo “Puente de las Brujas”

ren arabera, soro horretan aldatutako landarea sagastia ez izan. Garai batean, sagastiak garrantzi handia zuela garbi uzten dute soroen izenak.

Kaleko etxeen izenak aintzat hartuta, berriz, hargin dexente topatuko dugu: Argiñanea, adibidez. Izenek, garai bateko lanbideak adierazten dizkigute, beraz. Eta noski, izengoitietan oinarritutakoak ere badira, Maletenea, Mutionea, Mariandi, Oñandinea, Zintzelanea, Atabaleronea, Planttanea...

Faunari dagokionez, hor ditugu Azaritokia eta, Ubaran errearen inguruetan; Arrantzu, Buruntza mendiak N-1 errepide aldera duen maldan dago, badirudi arranoen bizilekua zela garai batean. Adiera mitologikoa dutenak ere bai: Basajaundi harkaitza, Sorginzulo, Akelarre...

**A: Ondoriorik atera al daiteke?**

U: Jendeak ezagutu arren, orain artean inon azaltzen ez ziren toponimoak baloratu eta bizirik mantentzea aholkatuko nieke andoaindarrei. Ea, toponimoen bilketak horretarako baliario duen, eta galdu diren izenak, leku berean eraikitzen diren etxe berriei ipintzen zaizkien. Izan ere, etxe eraiki berriei modan dauden izenak ipintzeko joera dago gaur egun: Toki Eder, Gure Babesa, Gure Kaiola eta tankerako izenak hamaika daude herri guztietan. Izen horiek ez dute ezer adierazten, ez diote tokiari erreferentziarik egiten. Polita izango litzateke, etxe berria eraiki aurretik bertan zegoen baserriaren edo soroaren aitzinako izena zein den ezagutu eta hori ipintzea.

Agurtzane Ormaetxea

# Gipuzkoako landarezale handienetakoak

### Merkatua txikia da oso, eta konpetentzia handia

Anoetan, baina Billabonako muga ikutzen dago Lumane baserria, bertako lur sailak berriz bi herrietan daude banatuta. Lumaneko Ramon eta Mikel Urkizu gazteak, kaletarrak dira izatez, duela bi urte eskas bertaratu ziren baserrira, eta geroztik beren bizibidea den basoko landare eta fruitu-

arbolak lantzen ari dira buru-belarri. Aitarengandik jaso zuten landareak hazteko afizioa, aita-amak, lanbidea gogorregia zelakoan, ez zuten hasieran ofizio hau beren semeentzat nahi izan. Gaur egun berriz, beren lana eta ahalegina ikusita, harro ere sentitzen direla iruditu zaigu.

Pinuak, izeiak, haritzak, intxaurrak eta gaztainak hazten dituzte batetik; sagarrondoak, udareondoak eta gerizondoak bestetik. Beren ekoizpena baserritar txikiari dago gehienbat zuzenduta. "tarteka erakunde publikoetatik eskari handiagoak ere egiten dizkigute, baina normalean guk nahi baino

gatik diote behin eta berriro anaiak: "Negozio arriskutsua da, ez dago batere segurantzirik: bi urtean lanean aritu eta gero, izozte batek edota merkatuko gorabeherak dena alferrik galarazi dezakete".

Barazkiak lantzen hasi ziren lehenengo Ramon eta Mikel, baina etekina urria zela eta, lorak, klabelinak alegia, hazteari ekin zioten. Orduan ere barazkiekin izan zuten arazo berberarekin egin zuten topo: maioristei salduz oso diru gutxi irabazten zuten. Horregatik, probetxuzkoena beren ekoizpena handitzea, baina lantze-mota bakar batean jardutea izango zela iruditu zitzaion. orduantxe ekin zien basoko landare eta fruitu-arbolak lantzeari, eta orain etorkizunik ere ikusten dute arlo horretan.

**"Kolpean aberastu behar  
nuela uste nuen"**



Landare berria

gutxiago" diote. Igan-dectan hartzen dute jai, gainerakoan eguzkia irtezen denetik ezkututzen denera arte aritzen dira urte osoan lanean: udaberrian hazia bota, abuztuan landarea txertatu eta urte osoan zehar belarra kendu sailak garbi mantentzeko. Santa Lutzitako ferian hasi eta urtarrila eta martxo bitartean egiten dituzte salmentak feriaz feria, batean eta bestean. Basoko landareak badu berezitasunik beste lantze-mota batzuekin alderatuz, alegia, hazia bota eta handik bi urtera baino ez dira etekinak jasotzen, horre-

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUA

## ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22  
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



## BRONTE

ZENTRU OPTIKOA  
BILLABONAN

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU  
KONTAKTU LENTEAK  
GORRENTZAKO APARAILUAK  
Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA  
TOLOSA-DONOSTIA



## Nork berea

Gazte hauek alabaina, gazteak izanik, bestelako esperientziarik ere izan dute nekazaritzan. "eskolatik irten nintzenean kolpean aberastu behar nuela uste nuen nik" dio Ramonek irribarrez, baina ezustek ere izan zituen, "barazkiekin hasi ginencan kooperatiba batean aritu ginen, dezepzio handia izan nuen eta dirutza galantak galdu ere bai". Landare-lantze arloan ez dago kooperatibarik, Gipuzkoa osoan hirulau baino ez dira ekoizpen handiak egin eta hortik bizi direnak, baina aldi berean ez dago landarezaleen arteko bilgunerik, ezta erakunderik ere. Ondorioz, euren arteko kompetentzia handia eta gordina da gehienetan. "Merkatua oso txikia da, hemen lantzen dena Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako iparraldean baino ezin da saldu, hemendik kanpo beste landare mota batzuk erabiltzen dituzte eta, horregatik landarezale bakoitzak bere txokoa aurkitu behar du merkatuan eta nahikoa lan izaten du gero hori zaintzen". Mikel eta Ramon txandatur egunero joaten dira feriaran batera beste landarezaleek zer eskaintzen duten ikustera, prezioak ezagutzera eta ea eskaririk badagoen aztertzeraz.

---

### "Erakundeen laguntzak ezinbestekoak"

---

Gipuzkoako Diputaziotik jasotzen duten laguntza handiari esker ari dira une honetan aurrera ateratzen. Diputazioak berak bezero asko



Ramon eta Mikel

bidaltzen ditu Lumanera eta sagastiak izateagatik dirulaguntza handiak ematen dizkiete, baina "lanbide honetan ez dago segurantzarik" diote berriro. "Europako merkatu batua dela eta, zer gertatuko da dirulaguntzak kentzen badizkigute?". Izan ere, eta beraien esanetan merkatua oso sensiblea da, eta faktore askok eragiten dute beren etekinetan. Bestalde Ramoni iruditzen zaio hemen, Euskal Herrian produzitzeko interesik ez dagoela, "erakundeak beraiek dira eskari handiak dituztenean kanpora jotzen dutenak". Europako tamaina handiko ekoizpenak, beste arlo batzuetan gertatu den bezela, landareen arloa zapuztuko ote duen beldur dira. "gu ere European produzitzen duten bezala produzitzeko prest egongo ginatke baina horretarako erakundeen laguntza behar dugu".

---

### Espainia osorako landareak hazteko egitasmoa

---

Eta laguntzak aipatzean Ramon eta Mikelek gogorarazi digute duela urtebete Diputazioak Urnietan dituen negutegietan Espainia osorako landareak hazteko egitasmoaren berri eman zuela "egunkarrietan ere agertu zen", diote: "Gipuzkoako landarezale guztiekin jarri behar omen zuen harremanetan proiektuan parte harrezaten". Orain dela urtebete esan zenaren zain daude bi gazteok. "Gauza horiek mantso ibiltzen dira" esaten die amak pazientzia aholkatuz. Ramon eta Mikelek ordea, buruari astintzen diote eta etorkizunean hitzak baino ekintzak nahiko lituzketela esaten digute.

# OINETARROAK

**MODESTA ARANBURU**

Kale Berria, 28 - ☎ 59 03 07  
**ANDOAIN**

## PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARTZA ETA ETXeko POSTREAK  
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

## ANDOAIN

# Rikardo Arregi kazetaritza sariaren VI. edizioa

Koldo Izagirre eta Jose Luis Zabala idazleak, Patxi Huarte komikilaria eta Iñigo Agirre kazetaria saritu dituzte.

Hilaren 10ean Rikardo Arregi hil zela, hain juxtu mende laurdena bete zen egunean, bere izena daramaten Kazetaritza sariak banatu zituzten Andoainen. Urte osoan zehar prentsa idatzian euskaraz idatzita agertu diren lanik onenak saritzea izan du helburu Kazetaritza sari honek. Aurten, VI. edi-

zioan, epaimahaia berria izan da: Nerea Azurmendi, Joxe Aranzabal, Hasier Etxeberria eta Gaizka Aranguren kazetariak eta Maria Pilar Collantes Andoango Udaleko alkateak osatuta. Epaimahaia- ren idazkari lanetan berriz, Jon Unanue Udaleko euskara teknikaria aritu da.

**Baloraziozko kazetaritza atalean Koldo Izagirre idazlea** izan da aurten irabazlea Argia astekariaren urtekarian argitaratutako **“Liliput debekatuak”** artikuluaarekin. *“Xenpelarrek aulki baten gainean zutitu behar zuten kantatzeko, isilik gelditzen zen Muxarro harroaren erronkari ezin erantzumez; Motza elizatik aparte ibiltzen zen, mehatxatu egiten zituen eta gauetz harrika ematen zien gizaraioak arbolei, beldurrak; Telleri-Txikiri botatzen zioten ez zela gauza familia izateko, bazekitelako min hartzen zuela; Artzai Txikiyak auzoan zeuzkan ardiak eta arditak, ez dakigu haren izen-deiturarik; Frantses Txikiyak bazterretan egiten zuen lo; Mattin laneko istripuz hil zen omenaldirik merezi izan baino lehen...; urrundik dator Lazkao Txikirainoko haria. Txipiak ari korapilatua. Txipiak baditu, izan ere, makina bat komeria taila ertainak nagusitu diren gizarte honetan”*. Pasarte honekin hasi zion Izagirre azken hamar urteotan Euskal Herrian gertatutakoak kontatzeari.

### Ordaindu beharreko zorra

Sari banaketa egunean ere zerbait kontatu nahi izan zuen. kontzientzia lasaitzeko edo. Izan ere, batxillerra burutzen ari zela, maisuak klase aurrean aurkezteko lan bat agindu zien ikasleei. Koldoren lana ikaragarri gustatu zitzaizkien guztiei. Hain zen ona, ze sospetxa hartu zuten, berea ez ote zen edo. Ez zen berea, ez. Rikardo Arregiren artikulua bat zen. Izagirreri,

azkenean, egia aitortzea beste erremediorik ez zitzaion geratu. Orduztik Arregirekin zorretan zegoela sentitu izan omen du eta berarekin zuen zorra kitatzeko sari hau irabaztea baino modu aproposagorik ez dagoela esan zuen. Pasadizu bitxi honekin eman zituen eskerrak idazle donostiarrek.

### “Inork ez zekien gerra bat zer den, eta zer den jakin gabe itzuli gara”

**Erreportaia ataleko saria** ere idazle batek eskuratu du, hain zuen **Juan Luis Zabala** gazteak Euskaldunon Egunkarian argitaratutako **“Kroazia Samina”** erreportaiari esker. SOS Balkanesek errefuxiatu bosniarrei laguntza eramateko antolatutako “Nairobitarra” autobusean egin zuen bidaia Juan Luis Zabalak, bi-

daiaren antolatzaileekin eta beste bost kazetariarekin batera. Egunez egun ikusi eta sentitutakoak kontatu zituen Juan Luis Zabalak abenduak 4tik 14ra bitartean idatzitako kronikan. Hona hemen saria mereri izan duen erreportaiaren zati bat: *“Gutako inork ez zekien benetan zer den gerra bat, gerraren ondorio zuzenak gure larruan bizi eta sentitu gabeak ginen guztiok. Gure gurasoan oroitzapenak genituen, beharbada erreferentzi hurbilena: gosea, miseria, oinazea izan daitezkeen gauzarik txarrena, latza benetan. Gerra zer den jakin gabe gindozan Splitera Nairobitarrean sartuta. Gero, Kroaziara iritsi ondoren, gerra benetan bizirik dagoen tokietara sartzerik izan ez dugunez, itzuli ere gerra zer den benetan jakin gabe itzuli gara Euskal Herrira eta hobe*



Sarituak

horrela gainera. Luzaro iraungo ahal du gure ezjakintasun gozoak!

**Bigarren aldiz komiki bat saritu da**  
**Sekzioa ataleko saria "Zaldi Eroa"** goitzenpean **Patxi Huarte** naparrak bereganatu du. Sari honen oinarrien arabera "mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa" da sari-tu beharrekoa eta epaimahaieek Euskaldunon Egunkariaren "Nafarkaria" gchigarrian agertutako "Noski Jator" komikiak sari hori merezi duela erabaki zuen. Epaimahaikideen iritziz "indar eta gaztetasun handikoa da, freskotasuna dakarkiona kazetaritzari, eta naturaltasun handiko elementuez osaturikoa". Bigarren aldiz komiki batek irabazi du sekzio ataleko saria. Bigarren edizioan Zakilixut pertsonaiaren egilea izan zen saritua.

## "Kontuan hartzeko eredia"

Azkenik, **Herrietako aldizkariaren atalean** saria Oñatiko "Kontzejupe-tik" aldizkariko **Iñigo Agirre** kazetariak lortu du "Urbiako fondaren isiltasunean protagonistak mintzo" erreporataiari esker. Urbiako fonda 1925ean inaguratu zenetik hona, tokiaren jabetza dela eta, izan diren gorabeheren berri ematen du Iñigo Arregiren lanak. Fondarekin lotura zuzena izan duten pertsonen testigantzak bildu ditu Arregik lan hau egiteko.



**Sari banaketa**

Epaimahaikideek eredugarritzat jotute lana "ez bakarrik herri aldizkari-entzat, baizik eta zabalkunde orokorreko edozein komunikabide idatzirako".

Aurtengo Rikargo Arregi saria banatzera Joseba Arregi Kultur sailburua eta Rikardo zenaren anaia joan zen. "Gaur betetzen dira hain zuzen 25 urte Mendaroko bide bazter batean Rikardo Arregi hil zela", honela hasi zen Kultur sailburuak anaiari buruz egindako gogoeta. Bere esanetan Rikardo bere garaiaren eta giroaren beharrez suertatu zen kazetari eta alfabetatzearen suspertzaile. Baina, baten beste Rikardo bat, Rikardo pent-salaria.

## "Gizartea errotik eraberritu behar"

Arregi sailburuaren ustez, anaiak moldeak hautsi zituen bere belaunaldiko beste hainbatek bezala; gizartea errotik eraberritu beharra ikusi zuela esan zuen: "Rikardori ez zitzaion zertorkiona zertorkion bezala nahikoa. Euskal gizartearentzat benetan garrantzizkoak ziren gaiei buruz hitz egin eta idatzi zuen: erlijioa eta sinesmena, abertzaletasuna, euskara, euskal kultura, sozialismoa".

Bere heriotzaren hogeita bostgarren urteurrenean inoiz baino sendoago egon da jendearen gogoan Rikardo zenaren lana.

**Idoia San Sebastian**

# EROSO, S.L.


Gas eta Berogailu Instalakuntzak  
 Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

**ZURE NEURRIKO AURREKONTUA  
 EGINGO DIZUGU**

**DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:**

**DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05**

**IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64**



## Indarrak ba al du sexurik?

Lurdes Gorosti pultsularia Espainian eta European txapeldun

“Hamahiru urte besterik ez niuela pultsularien entrenamendu bat ikusteko parada izan nuen. Gustatu eta berehala hasi nintzen barrarekin jolasean. Hurrengo egunean ere bertara joan nintzen eta oraindik ere bertara joaten jarraitzen dut”.

Zizurkildar neskatoa oso entzutetsua da dagoeneko Europa mailako alterofilia txapelketetan. Marka onak lortzeko gaitasuna erakustez gain, neskak ere indarra badugula frogatu digu. Lurdes Gorostidi Zizurkilgo alterofilia edo pultsulari taldeko partaideetako bat du. Bautista Kortajarenak gidatzen duen talde horretan hiru neskek parte hartzen dute, gaintontzekoak mutilak dira. Batis Kortajarenak kanpoan entrenatzen zuen hasera batean, ondoren bere herrian, Zizurkilen, entrenatzeari ekin zion. Beraz, kirol mota horretan hasteko baliabideak Batisek sortu zituela dio Lurdesek.

Danena Kirol Elkarteko partaide da talde hori, eta nahiko berria da Zizurkilen. Hain zuzen ere, duela lau urte hasi zen taldea lehen entrenamenduak egiten. Lehen entrenamenduak goialdean egiten ziren, gerora ordea, Zizurkilgo Pedro Maria Otaño ikastetxean ere hasi ziren: “Gu ikastetxean hasi ginen entrenatzen, eskola orduz kanpo, eta jende gehientsuena orduan sartu zen taldean” dio. Kirol hau ez dela oso entzutetsua dio Lurdesek:



Londresen zegoela

“Euskal Herrian Zizurkil eta Zarautzeko taldeak dira indar gehiena dutenak. Eta noski, bi talde ezagunekin soilik kirola ezin liteke gehiago zabaldu”. Hala ere bai Espainian bai European kirol hau oso ezaguna da, hala nola, Bulgaria, Esloboanien eta abarretan. “herri horietan hemen futbolak adina indar du” dio Lurdesek.

### “ Euskal Herrian oraindik ez da oso kirol ezaguna ”

Dirulaguntzei dagokienez berriz, Diputazioak baliabide urriak ematen dituenek, Euskal Herriko talde asko porrotera joan direla esan digu Lurdesek: “Ekipo asko doaz behera. Gu-

txiengo dirulaguntza beharrezkoa da, materiala nahiz beste hainbat uskerirentzat”.

### Bi denboretan eta arrankadan

Lurdesek askorentzat berria den kirol honi buruzko xehetasunak eman digu: “Txapelketetan bi ariketa mota egiten ditugu. Bata, barra bi denboretan altxatzearena litzateke, eta bestea berriz arrankadan”. Kirol honetan ez du puntu gehien pisu handiena jasotzen duenak lortzen, norberaren pisua eta jasotzen den pisua dira puntuaketarako kontuan hartzen direnak: “Halere bestelako txapelketak ere bada: teknika soilik baloratzen den txapelketetaz ari naiz. Hain zuzen ere, hamabai urte bitartekoak soilik dira

**Oremendi**  
**Kirolak**

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO. 2 - TELF. 59 18 06 - ANDOAIN

**Joxe Ramon**

**Taberna**

**PINTXO EDERRAK !!**

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

partaide txapelketa hauetan". Emakumezkoetan ordea, adin guztietakoak elkarren lehian aritzen dira. Izan ere, oso emakumezko gutxi baitaude: "Europa mailan parte hartu nuen azken txapelketan neu nintzen gazteena. Gai nontzekoak hogeitertetik gorakoak ziren". Aldiz, gizonezkoetan maila desberdinak daudela dio.

Datorren udari begira beste bi txapelketa ditu Lurdesek. Abuztuan Eslobeniara joango da: "Txapelketa horretan Europa osoko pultsulariak parte hartuko dute". Irailean berriz, hamasei urtetik beherakoentzat den beste txapelketa batean parte hartuko du.

Entrenamenduak astean bost aldiz egiten omen dituzte. Ordubetean aisa buka daitezkeen entrenamenduak bada dira ere, sarritan ordu pare bat ere igarotzen omen dituzte: "Gure artean txorakerietan ibili ohi gara, giro ona dugu eta ongi konpontzen gara. Giro horrek aurrera jarraitzeko laguntzen digu".

Entrenamenduak desberdinak dira erabat: "Batuetan muskulazioak egiteko ariketak egiten ditugu, besteetan hankak indartzeko ariketak...".

Elikadurari dagokionez berriz, inongo kontrol berezirik ez dutela esan digu. Era berean ordea, garrantzirik baduela dio: "Kilo baten gorabeherak lau kilo gehiagoko pisua altxatzeara behar zaitzake, beraz, norberak bere kontrola eramatea ez da inoiz gaizki etortzen".

### Txapelketak eta txapelak

Orain arte izan dituen txapelketen markak zer nolakoak izan diren galdetu gabe ezin etsi izan genuenez, jarraian errepasso txikitxo bat egin digu: "Aurten hiru txapelketetan soilik hartu dut parte. Hasera batean marka bat haustera joaten ginenez, ez genuen txapelketarik egiten. Jaz, Londresen izan nintzen, baina txapelketa ez zenez, ez gintuzten sailkatu. Ondoren, Espai-

niako txapelketan parte hartu nuen eta bertan, lehen postua lortu nuen. Aurten berriz, Europa mailako bi txapelketetan parte hartu dut. Batean, lehen postua lortu nuen eta bestean hirugarrena". Ez da ba neska makala!


### Espainia eta Europako txapelduna

Txapelketa kontuak alde batera utziz, eta ikasketekin jarraituz zera esan digu: "BBBko lehenengo mailako ikasketak burutu berriak ditut eta beka baten laguntza dut". Beka aipatu digunean, zehaztasun gehiago eskatu diogu. Estatu mailan hiru bekadun soilik daudela esan digu, emakumezkoen sailean: "Beraz, beka honekin Madril en egon beharko nuke ikasketan burutzen. Era berean, entrenamendu guztiak ere bertan egin beharko nituzke. Neure burua ordea, gattetxoegia ikusten dut hara bizimodua egitera joateko...". Hala ere, marka oso altuak eskatzen dituztela dio Lurdesek: "Egun beka bat lortu hala izateko oso marka altuak eskatzen dituzte, oso zaila da beka bat lortzea, erreztasunak urriak dira oso".

### Madrilera joateko beka bat

Eta besterik gabe elkarrizketa amaitutzat jo dugu, nahiz eta berak hitz jario luzea izan oraindik. Amaitu aurretik ordea, kirol mota hori egiteko animatzea eskatu nahi zuela esan digu. Beraz, badakizue, kirolzale zarenok, beste kirol mota bat ere baduzuela nahi izanez gero.

Maidar Barandiaran



Saso ederra du Lurdesek

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK  
EDURNE**

KAL.ETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

**ANDOAIN**



LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK

**GASA ETA BEROGINTZA**

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

Asteasu goiko Iturriotzen jabe izan zenekoaz

## Iturriotz benta lau herriren topagune

Iturriotz benta Andazarrate portutik bi kilometro eskasetara dago, 593 metrotako altueran, Ernio mendiaren magalean. Garai batean bentaren ondoan Donostia eta Hernani lotzen zituen aintzinako bidea zegoen, honez gain betidanik, eta aintzinan gehiago, Iturriotz bidegurutze garrantzitsua izan da; kostatik barrualderako bidea edo alderantziz egiten zutenentzat ezinbesteko geldigu-

ne izan baita mendeetan zehar. Gaur egun oraindik ere Asteasu aldetik Erniora abiatzeko nahitaez igaro behar da Iturriotzetik, hala nola aldamenen duen San Juan baselizatik. Lau herri mugatzen eta elkartzen ditu Iturriotzek: Aia, Asteasu, Errezil eta Larraul. Eta horregatik hain zuzen ere, herri hauek auzi bat baino gehiago izan dute bentaren jabetza dela eta.

Asteasu berak bentaren edota hobeto esateko benta baten jabe izan dela adierazten dute idatziek. Benta batena diogu Serapio Mujikaren "Monografía de la Alcaldía Mayor de Aiztondo" delako liburuan Asteasuko Udalarena zen Goiko Iturriotz benta 1.745ean desagertu zela diolako. Garai hartan Asteasu Goiko Iturriotzen jabe izateaz gain, Illurdi baserriaren jabe ere bazen. Egungo Iturriotzi

buruz, Beheko Iturriotzi buruz alegia, betidanik Aiako Unibertsitatearena izan dela dio. Esandakoa egun bere ahizpa Juana eta Mertxerekin batera bizi den Eugeni Iribar Agote andereak egiaztatu digu, "nik ezagutu izan ditut benta haren hondarrak eta badakit Asteasuko zela" dio Eugeni.

**"Goiko Iturriotzen hondarrak orain urte batzuk arte egon dira"**

eta Juan de Elizondo arotz asteasuarrei agindu zitzaizkiela konpontze lanak enkantea egin ondoren. Udalak ordea, lanen kostua 1.100 veyon dukatekoa zela jakin zutenean bertan behera utzi zuen benta konpontzeko asmoa eta ondorioz, bi asteasuarrek auzitara eramane zuten Udala. 1706ean Asteasuko Udalak bi perituri agindu zien benta hondatuta zegoela egiaztatzen eta horiek berriro ere benta konpondu beharra zegoela adierazi zioten Udalari. 1709an Asteasuko alkatea zen Pedro de Aristegi Isastegietak arotza eta harginaren auziaren sententzia eman zuen. Alde batetik, bi langileei arrazoia eman zien, eta bestetik, Udalaren jarrera ere justifikatu zuen, gastuak gehiegizkoak izanik, ulertzekoa zela Udalak gastuei ezin aurre egin ahal izatea zioen. Asteasuko Udalak urte horietan 30 dukateko errenta jasotzen zuen urtean bentako maizterrengandik.

1704. urtean Asteasu benta haren jabe bazela egiaztatzeko Udaletxeko artxi-boetara jotzea besterik ez dago. Idatzi batean argi esaten da urte horretan benta oso hondatuta zegoela eta Juan de Usabiaga hargin



Gela honetan egin zuen lo Loiolako San Inaziok

Izango duzu, ziur, ezagutzera ematea merezi duen aintzinako argazki edo erretraturen bat. Argazkiarekin batera bidaliezaguzu azalpen txiki bat idatziz.

**Joxe Mari  
ITURRALDE**  
ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.  
ADUNA - ☎ 69 20 81

  
**ILLUMBE, S.L.**  
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 TOLOSA  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 ANDOAIN

### Loiolako San Inazio Iturriotzen

Eugeni, Joana eta Mertxe Iribar Agote Iturriotzeko bentan jaioak dira, baita beren aiton-amonon gurasoak eta horien gurasoek ere, horregatik benta noizkoa den galdetu diegunean, benta "betidanikoa" dela entzuteak ez gaitu harritu. Halere, ez dute zalantza izpirik agertu Aiakoak direla esatean. Jakina da benta hau bidaiari, mandazain eta ibiltari askoren atsedeen tokia izan zela. Baina hauen artean bidazti ospetsu batek eman dio batez ere benta honi aparteko sona: Loiolako San Inaziok hain zuzen ere, "Loyola'tar Inigo deuna Paris'tik Azpeiti'ra zetorrela 1535 garrenko jorrailan (abuztuan) etxe onetan egon zan eta diotenez gela onetan lo egin ta ementxe Egibarko gizonak ikusi eta ezagutu omen zun" irakur daiteke gelako errotulu batean.

Eugenik kontatu digunez gizon bat iritsi zen, beste asko bezala, egun batean bentara. Artean ez zuten ezagutu nor zen. Gizonak bere gelan giltzatuta eman zuen denbora luze, eta baten batek, nor izango zen errezeloa zeukalako edota bere jakinminari eutsi ezinda, zerrailatik begiratu eta Loiolatarra ezagutu zuen. Etxekoek nor zen jakin zutenean Azpeitiraino zabaldu omen zen hango berri. Loiolatarrak aitzitik, ez zuen, besteek uste bezala, inor bere bila etortzerik nahi izan bere ohoreari zegokion ponpaz lagunduta, eta bakarrik abiatu zen Azpeitira edozein bidaiari arrunt bezala. Lo egin zuen aldameneko gelan ere meza eman zuela kontatu digu Eugeni. Horrelakoetan sarri gertatu ohi den bezala etxe honek ere badu egungo bisitariak ezagutzera emateko bitxitasun edota mirakulu baten aztar-



Eugeni, Mertxe, eta Joana, "Lixta" lagun dutela

naren bat: Loiolako Inazioren hiru ile egon omen dira luzaro bere gelako horma batean itsatsita eta hiru ahizpek diotenez horma ez da inoiz zuri-tu.

### "Hiru ile horma bati itsatsita"

#### Jende askotako parajera

Gaur egun Iturriotzek ez du garai batean bezain beste jende bere teiltupean hartzen, lo egiteko behintzat inor ez. Hala ere, asteburuetan eta eguraldi ona eginez gero, asko dira Erniora igo aurretik edota jaitsi eta gero bertan mokauren bat hartzen dutenak. Hiru ahizpek nahikoa lan izaten dute askotan bertaratzen diren guztiei kasu egiten. Ondoan duen San Juan baselizak bestalde, jende asko hurbilazten du San Juan egunean parajera. "inguruko guztiek debozio handia diote" argitu digu Mertxek.

Ezaguna da egun horretan meza ondoren benta inguratuz egiten den prozesio txikia eta haur bedekintzea. Gainera, San Juan eliza azpitik errekaxo bat igarotzen da eta bertako urak zornearen aurka oso onak omen dira Mertxeren esanetan, horrek ere erakartzen du, ziur aski, bisitari bat baino gehiago.

Hiru ahizpak dira elizako zapiak txukun eta garbi edukitzeaz, hala nola bestelako garbitasunetaz arduratzen direnak. Bisitariak normalean itxita aurkituko du eliza, eta hiru ahizpen konfidantzazkoa baino ez bada irekiko zaio atea. Sartzea lortuz gero, barruko antigoaleko giroak bere irudimena piztuko du, are gehiago han dagoela Mertxe kanpaiak jotzen entzuten badu. Hemendik aurrera eta Iturriotzeko berri gehiago eduki nahi izanez gero, hiru ahizpengana hurbildu eta galdetu beharko die bisitariak. Iturriotz bentak bere baitan gordetzen eta babesten dituen hiru ahizpeei.




**LOATZO**

**LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA**

**ZURE ETORKIZUNA**  
**BIZI ASEGURUA**

JOXERRA GARMENDIA MUJIKA  
MARI JOSE GOENAGA URIARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA  
Antxin kalea, 3 behean - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA



TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

—BILLABONA—

## Ezin musikarik gabe bizi

Iñaki Zalakain, musika eskolako irakaslea eta URRATS taldeko abeslaria

Iñaki Zalakain billabonatarrak 13 urte egin ditu dagoneko musika eskolan irakasle. Tradizioz familia musikazale bateko semea da; aitona trikitilaria, aita bonbardinolea, anaiek saxofoia, gitarra, bateria eta baxua jotzen dute, “igandero egiten genituen etxean musika saioak garai batean” dio. Zazpi urterekin aitak kalera ateratzen omen zuen akordeoia jotzen. Geroztik bere lankidea den Itziar Zamorarekin ere aritu da gitarra jo eta kanta tradizionalak abesten. BASAJAUN taldea utzi ondoren berriz, URRATS taldeko abeslaria bihurtu da egun. “Musika nere bizitza da, ez dakit musikarik gabe bizitzen” aitortu digu, bestalde, oso gogoko omen ditu haurrak, beraz, musika eta haurrak elkartuta lan egin ahal izateko aukera izanaz poztu egiten da Iñaki.

Billabonako musika eskola 1.982. urtean sortu zuen Udalak. Hurrei musika munduan sartzeko bidea eskaini nahi zitzaion, bestalde kontserbatokietako dinamikaz bestelako zerbait egitea zeukaten buruan: “haurra musikarekiko sensibilizatu, musika biziarazi eta aldi berean ondo pasatu”. Lau urteko haurrak hartzen dituzte eskolan eta 33 urte bitarteko edonork jo dezake bertara, “gure asmoa ez da bertan inor profesionalizatzea, musika ezagutaraztea baizik”. Dena den xirularekin hasi eta gitarra, organo txikia, pianoa, bibolina edota akordeoia jotzen ikasteko aukera ematen zaie. Urte amaie-

rako jaialdia izan ohi da neska-mutilek herriaren aurrean beren lana agertzeko unea, haurrek bezainbat gurasoek biziki espero izaten duten unea.

**“Oso txikitatik egin daiteke musika”**

Orain arteko lanak emaitza onak eman dituelakoan dago Iñaki, “kontserbatokiko txostenek eskolatik igarotako haurrek maila altuagoa izan ohi dutela diote”. Gurasoen aldetik ere badirudi musikarekiko sensibilizazioa areago-

tu egin dela, “nahiz eta guraso askok oraindik ere haurra nonbait edukitzeagatik eraman eskolara, dantzara edo judora eramaten duten bezala”. Dena den garbi dago egunero hiru orduz musika ikastera joaten den haurra gustoz joaten ez bada, utzi egingo duela. Eskolak Udalaren laguntza eta babes izanik ere, eskaintza eta aukera



Urte amaierako jaialdian

FRANCISCO MENDIKUTE  
**HARATEGIA**



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

**LAGUNAK**  
**KARROZERIA**

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA  
FURGOI ISOTERMIKOAK  
HOZKAILUAK  
TXAPA ETA PINTURA



gehiago izanez gero, zenbait haurren emaitzak hobekiago izango lirakeela eta herritar gehiagok joko luketela bertara pentsatzen du, hala ere. Iñakik.

## “ Haurrek gustoko dute eskolara joatea ”

### URRATSEko abeslaria

Talde sortu berria da URRATS, aurten egin ditu lehenengo saioak ihauterietan eta Iñakik dioenez harrera ona egin zaie. Karlos tolosarra bateriaz. Xanet oiartzuarra gitarraz. Fermin irundarra teklatuaz. Xanti errederiarra bajoaz. Pirata errederiarra haizea joz eta Iñaki abesten, jaietako berbenetan jotzen dute, han eta hemen. Denetik jotzen dute eta errepertorio martxosoa omen dute entzuleen esanetan. Gogorra baina atsegina ere bada bere ustez berbenetan jotzea; atsegina. besteak



“ URRATS ” taldekoak

beste, gustoko lana egin eta, inoiz, “oso gutxi halere”, dirua irabazten delako. Gogorra berriz, ez ohizko eta orduz kanpoko bizimoduak bere alde ez hain atsegina ere ba-

ohi da horretarako unerik aproposena. *Edozein herriko jai horietan* ibili ohi diren udatiarrak batean baino gehiago ikusi ahal izango dute, hortaz URRATS.

duelako; bidaiak, gaueko hotzak, ekaitzak, ogitarteko afariak eta gau-pasa luzeak. Hala ere, “eszenatokiak engantxatu egiten zaitu” dio Iñakik eta “bertan eraldatu egiten zara”.

## “ Azaroan grabatuko dute lehen diska ”

Hastapenetan baino ez badaude ere, URRATSEk suertea izan du, izan ere. Eñaut beren errepresentatzaileak lagunduta, diska bat grabatuko dute azaroan, “diska ezinbestekoa da eza-gutzera emateko” dio Iñakik. Eta hain zuzen ere lan horretan ari dira aldi honetan herriz herri musika jotzen. Udako jai andana izan

## EUSKALDUNA



### Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik aproposena!!


Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILBARONA

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behea  
ANDOAIN

# PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO  
KOADERNAKETAK



Dietetika  
eta Belardenda

## ZAINBERRi

Naturopataren kontsulta  
Iridologia  
Masajea  
Estetika

Akupuntura  
Ile tratamenduak  
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86  
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

TOLOSA  
ANDOAIN



● **Xabier Lasa**

## UDA ALDIKO TELELELOA.

Udako lehen eguzki printzekin, dekretuz bailitz, gure bizimodua zeharo aldatzen da. Urteko legez, bizi habitoak-eta aldatzen ditugu berezko mekanismoz, aisi denbora ugaldtu eta bidaiak proiektuak pizten. Kaletarragoak bihurtzen gara.

Trasformazio horixe geure baitan nabaritu ordurako ordea, aspaldian dauzkagu teleprogramatzailcak buruhauste betean, telekontsumitzailea nola engatusa teknikak eskuartearen darabilzkitela. Ogibidea arriskutan ikusten baitute.

Sorgindu nahi gaituzte, eta zerako mezua luzatu: botoia sakatu hutsez, uda bera bezain programa arin, freskagarri eta dibertigarriak eskura ahal ditzazkegu.


Ezer baino lehen hor dohakie teleestratega horiei neure miresmenik zintzoena, ez baitu edozeinek balio horretarako. Artetsua izan behar baita, politikariek hauteskunde aurreko hamabostaldian erakusten duten sugekantandorearen ofizioa eduki behar baita. Eskainiko diguten produktua betibeti da bera, baina makilaiaren ikutuz, bestelakoa dela sinestaraziko digute, azken-azken modakoa, inoiz ikusi gabea, sentsazio zerutiarren sortarazlea. Egiaz, soilik zorroa da kolorez trukutzen dena. Mamiak ordea, betikoan jarraitzen du.

Tourraren epika, futbol-mundialaren baloi puztua, Isabelen Gemiokadak, realitixouen malkoak eta antzeko espektakulo ahozabalkariak oporretan direlarik, a ze komeriak dituzte zer nolako ikuskizun paregabea ipini ezin asmaturik! Kate ezberdinek autopromozio liluragarrietan erortzen dira, eta gero zer da eta urte osoko hamaika saio, filma eta abar erreposizioetara jotzen dute, irudipen eta profesionaltasun falta erakutsiz. Bestetan, Telecinco patentatu zuen estiloari jarraiki, maiz alaitasun faltsuaren bide hautatzen dute artisten gala, eta barietate zein konkurtsoekin. Betiko plastikozko aurpegiak, betiko ergelkeriak itxuraldatuak.

Gazteentzako eskaintzan berriz, serie amerikar kolonizatzaileak aukeratzen dira gehienbat. Gorpuzkera lirainak leku paradisiakoetan, giza-harreman axalekoak... den-dena gazte amerikarraren edertasunaren estereotipoa suspertuz. Iradokituz bezala, hemengo gazteok halakoxeko jokatu beharko genukeela.


Hori bai, kakazabarra gauza xarmangarrian bihurtzearen prestidigitadoaren ofizioa ezin sutuago betetzen dutela-eta, berean segi zezaten animatuko nieke, azken batean telebista ez den beste kontsumo habito osangarriagoekin tratuan jartzera zirikitzen baikaituzte. Halere, euren kontsolamendurako, adieraziko diet C.N.N. kate estatubatuar ahalguztidunekoei askoz zailagoa jarri zaiela ikuslea sareetan harrapatzearena. Audientzia ia erdiraino jaitsi zaie, eta gizajoeak, galerak erremediatuko dioten nazioarteko gatazka odoltsurik ezin sumaturik dabilta.

Ikuskizun belikoei dagokienez, eurek aldiz, beti tira diezaiokete zezekenten errekurtoari. Baita uda aldiro hain txekoak egin zaizkigun Atutxaren fikziozko gerra-parteei. Anitz estimatzen dira, anitz, espektakuloaren merkatuan.



“OTTO PETTE”  
ANJEL  
LERTXUNDI.  
ALBERDANIA.

Adin eta zuhur irakurri beharreko liburua da Lertxundiren azkenengo eleberria. Erdi Aroan murgilaraziko du irakurlea liburua, garai hartako informazio eta datu ugari eskainiz. Sei urte-tan burututako lan hau froga eta esperientzia berrien ondorioa ote den uste dute askok, egilea lehen-dik jorratzen hasia zen euskara literarioan aurrera pauso berriak emanez. “Biharko klasiko bat”, horrela izendatu dute batzuek.



“HAMALAU”  
MIKEL LABOA.  
ELKAR.

Kanta tradizionalak, poesiak eta kanta zaharren bertsiak berriek osatzen dute diska. *Lekeitioen* il-dotik jarraituz esperientzia berriei ere tarte egin die diskan. Euskaraz, katalanez eta portugesez abesten du, eta Camaron de la Isla eta John Cage musikariei omenaldia egin nahi izan die bertan.

**Labesaitz**  
OHINDEGIA

ETXEOENTZAKO  
APARTEKO  
OGIA!!

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

**LEITZ**

MENDIKO BIZIKLETAK

Ankoras, 4 - ☎ 30 04 69 - ANDOAIN

**MIRARI**

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162 ANDOAIN

## Hilaren 10ean 25 urte bete ziren Rikardo Arregi auto istripuz hil zela:

Gaztetasunaren fruitu heldua

*"Gizatasuna abstraktu bat ez dagoenez, hots, gizon bakoitza leku batekoa eta garai batekoa denez, kultura mota bat dagokio, berea. Euskaldunok ez gaitzake osa eta gure herriari jabetasunik eman, euskarazko kultura baten bidez ez bada".*

Rikardo Arregi zenaren hitzak dira. 1942ko irailearen 22an jaio, eta 1969ko uztailaren 10ean Euskaltzaindiaren biltzar batera zihoala auto istripu batean Mendaron zendutakoarenak. 26 urte zituela hila, gaztetasun kimutan, andoaindarra erreferentzia heldua genuen bere garaiko euskal kultura eta politikagintzaren testuinguruan. Eta baita etorkizunerako esperantza ere.

### Rikardo gogoan

**AMAIA LASA** Idazlea.

"Ezkerreko euskal lider bat bezala ikusten nuen: independentea, hori bai. Bere kezka politikoa hark kultura arloa, kazetaritza eta dena hartzen zuen. Gauza guztien gainetik euskararen alde egiten zuen. Askotan zioen euskara zabaltzea erraza izango zela politikoki libre izatea lortzen genuen momentutik. Erabat berritzailea suertatu zen nazionalismo tradizionalarekiko".

**IBON SARASOLA** Euskaltzaina.

"Kazetaritzan oso estilo bizia zuen, eta hor bere ekarpena handia izan zen: hainbat jende jarri zuen astero "Herriak eta gizonak" irakurtzen. Zentsura maretzeko abila zen. Nazioarteko artikulak beti gure egoerara aplikatuak irakurri behar ziren, eta hor trebezia bazuen hainbat gauza kontatzeko kontatu ez balitu bezala. Lerro artean irakurtzea esaten den hori".

**JUAN SAN MARTIN** Arartekoa.

"Oso langilea zen, pentsamendu argikoa eta ideia berriekin zetorrena. Bere galera garrantzi handikoa izan zen, biziko balitz seguru askoz indar handiagoz joango litzatekeela euskara aurrera. Politikan zein bide hartu zalantzan zebilen, ezkertiarra zen baina "baina" horiekin: euskararen alorrean, aldiz, zalantzarik ez zuen. Esperantza handia jarria zegoen bere eraginkortasunean".

**ANDONI SAGARNA** Eusenoerreko zuzendaria.

"Bilaketan zebilen pertsona zen. Kristaua zen, baina hor ere eredu baten bila zebilen. Euskaldun fededun monolitiko hura garai hartan hasi zen hankaz gora joaten. "Euskaltzaleen jainkoa hil behar dugu" saioa ez zen manifestu atea. Baizik eta eredu bat puskatu nahia. Halako errebeldia moduko bat bazegoen beregan, garai hartan polemikoak ziren gaiak plazaratzera ausartu zen".

**MIKEL LASA** Idazlea.

"Garai hartarako politikoki oso orekatua zen, eta oso ondo zekin zubiak ez hausten euskal mugimendu guztiekin. Ez zuen inoiz gaitzetsi EAJ bat edo orduko erbesteko taldeak. Pena izan da inork ez hartua Rikardo Arregiren joera ireki eta malgua, azken urteotan joerak asko gogortu dira eta irekitasun hura asko galdu da. Malgutasun itzela zuen korrante guztiekiko".

ARGIA Uztailak 10. Alberto Irazu

## Abortoaren on-gaitzak

*Duela gutxi datu honen berri jakin dugu: Euskal Herrian %25 haurdunaldi eten egiten dira. Hots, haurdunaldien guztietatik laurdenek abortatu egiten dute.... Nahi gabeko %86,4 haurdunaldi ez dira metodoek huts egitearen ondorio; aitzitik, metodo antikonzeptiborik ez erabiltzeagatik gertatzen dira. Horiek bai direla datu beldurgarriak. Nahi gabeko haurdunaldietatik %37,9 atzeramartxa erabiltzearen ondorio dira, eta %24,4 Ogino metodoa -daten metodoa- erabiltzearena. Horrek esan nahi du, gizakiok oso fidagarritasun handiko metodoak baditugu ere, oraindik txaputzak erabiltzen jarraitzen dugula, nahiz eta praktikak egunero erakusten duen ez dutela haurdunaldia eragozten... Haurdunaldia eteten duten %57 hogeita bost urtetik beherakoak izaten dira eta %79 hogeita hamarretik beherakoak... Esperientzia sexualak haurdun geratzeko arrisku erreala; eta neurri antikonzeptiboak erabiltzeko beharraz kontzienteago izatea ekartzen du. Honek egiaztatzen du gazteek kontrazepzioari buruzko informazio egokirik ez dutela.*

**Luis Elberdin** sexologoa  
(Egunkaria, ekainak 25)

## Mojen azalean dago edertasuna

*60 urte bete eta muxikaren pareko azala eduki nahi izanez gero, moja sartu behar dutela esaten die eder-kirurgian espezializatutako mediku italiar batek bere herriko emakumeei. Eguzkirik ez hartzea aholkatzen die espezialista horrek bere pazienteei, izan ere, eta bere esanetan eguzkia hartzeak hamar urte zahartzen omen du azala: "Egin ezazue mojek bezala eta ihes egiozue eguzkiari".*

(Erredakzioan itzulia)

Diario Vasco. Uztailak 11.



## IKAS-JOLAS

*Ikasi eta jolasteko guztia  
Opariak egiteko aukera  
Testu liburuak*

Pio Baroja, 3 - ☎ 59 13 61 - ANDOAIN

## ARANBURU agentzia

Aseguruak - Aholkularitza  
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea  
☎ 59 08 14  
ANDOAIN

winterthur

# Hots,hots!

## JAIOTZAK

**ANDOAIN:** Daniel Urrutia Etxaide. Ekainak 20.  
Asier Gutiérrez Fernández. Ekainak 29.  
Oihane Pereira Pinho. Ekainak 29.  
Mikel Quintero Hernández. Ekainak 30.

**ASTEASU:** Jon Zubeldia Larrarte. Uztailak 1.

**BILLABONA:** Jon Amiama Jauregi. Uztailak 8.

## EZKONTZAK

**ANDOAIN:** Jose Ignacio Miguel eta Maite Munain. Ekainak 17.  
Agustín Márquez eta Cristina Goñi. Ekainak 18.  
Jose Luis Quejedo eta Mari Jose Izagirre. Ekainak 18.  
Cesare Cagnolati eta Aurelia Parrón. Ekainak 18.  
Angel Pérez eta Purificación Jiménez. Ekainak 22.  
Jose Manuel Vegas eta Simona Sánchez. Ekainak 22.  
Juan Luis Makazaga eta Gurutze Sanz. Ekainak 24.  
Jose Angel Alfonso eta Pilar Quevedo. Uztailak 2.  
Jose Luis Bueno eta Teresa Rodríguez. Uztailak 2.  
Pedro Arroyo eta Idoia Oiarzabal. Uztailak 9.  
Juan Ramon Granado eta Conchi Montercelo. Uztailak 16.  
Pedro Letamendia eta Mari Jose González. Uztailak 16.  
Gorka Alvarez eta Marta Telletxea. Uztailak 15.

**BILLABONA:** Antonio Pérez eta Maria Angeles Mujika. Ekainak 25.  
Jose Manuel Garmendia eta Isabel Aizpurua. Ekainak 18.  
Jose Migel Balerdi eta Begoña Barriola. Ekainak 25.  
Pedro Miguel Alonso eta Lurdes Sarasua. Uztailak 2.

**ZIZURKIL:** Angel Arin Agirre eta Ana Jesus Agirrezabalaga. Ekainak 18.  
Jose Pedro Moreno eta Maria del Sol Gómez. Ekainak 25.  
Roman Minera eta Ana Mari Martín. Uztailak 2.  
Manuel Pérez eta Judith Kortajarena. Uztailak 9.



## GOIAN BEGO

**ANDOAIN:** Jose Mari Garmendia Ubiria. Ekainak 30.

**ASTEASU:** Antonio Iturbe Jauregi. Ekainak 23.

**BILLABONA:** Julian Zurutuza Zurutuza. Ekainak 18.  
Maria Luisa Irazu Galarmendi. Ekainak 19.  
Juan Labaien Gurrutxuga. Ekainak 24.  
Encarnación Belaunza Zedeazu. Uztailak 13.

## SUKALDE TXOKOAN




**Mila Garmendia.**  
*Patxine jatetxeko  
sukaldaria.*  
**Asteasu.**

## LIMOITARTA

### Osagaiak:

- *Hojaldrea*
- *Hiru limoi*
- *Esne kondentsatua*
- *Esnegaina*
- *Esnea*
- *Hiru arrautza*
- *Azukrea*
- *Maizena*

- 1- Hojaldre masa egin
- 2- Hiru arrautzen goringoa, hiru limoiren ura, bi limoi azal xehetu, ontzi txiki bat esne kondentsatu, ontzi bat esnegain eta esne pixka bat bota gainean.
- 3- Dena ongi nahastu eta moldean sartu.
- 4- Hiru zuringo bota eta elur puntuan jarri.
- 5- Hiru goilarakada azukre xehetu eta goilarakada bat maizena bota. Guztia zuringoarekin nahastu eta hostorearen gainean jarri.
- 6- Labean sartu eta hotza zerbitzatu.



KALE NAGUSIA, 19 behe

30 07 27

ANDOAIN

## BIKOITZ

- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak, Argazkiak, bideoak

## AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

## Salerosketak

### ANDOAIN:

☛ Panasonic KX-P1180 ordena-  
gailurako bederatzi orratzetako inpre-  
sora matritziala salgai. Oso gutxi dago  
erabilita. ☎ 65 54 50

☛ PC bat salgai. i286 16 Mhz.  
2MB RAM, 3 1/2 ETA 5 1/2 Floppy-  
ekin, 200 MB-tara iritsi daitekeen dis-  
ko gogorra (Konprimatua). arratoia.

inpresora matritzial berria. MS-DOS  
6.0. Windows 3.0 WordPefect 6.0  
(Dos). 70.000 pezeta. Xabier. ☎ 59  
38 46. Astelehenetan 13ak eta 16ak  
bitartean deitu.

### URNIETA:

☛ 70M2-ko apartamentua salgai  
Idiazabal kalean. Goi mailako kalita-  
tea eta zerbitzuak. Laugarren solai-  
rua. 11.800.000 pezeta. ☎ 55 27 69.  
Arratsaldez deitu.

## Alokairua

### ANDOAIN:

☛ Alokatzeko pisu baten bila ga-  
biltza hiru neska. Eskaintzaren bat  
izanez gero deitu telefono honetara:  
37 15 45. Izaskun.

## BETERRI

Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa.  
Eman iezaiguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean  
izango da.

Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik  
egokiena.



## LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK SALGAI  
ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Agustin de leiza 27 ANDOAIN ☎59 16 03

## Ageltzaritza

### M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa  
% 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)



## MAPFRE

### ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN  
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99  
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07  
Faxa 30-00-85  
ANDOAIN

## fotocolor

ERREBELATUA ORDU 1 EAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a.en erreportaiak  
Lan Industrialak



Jose Ignacio Unanue  
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN

# Zure hizpidea



## Andoaingo gas naturalari buruz

Andoainen aurki gas naturala jarri behar dutela irakurri nuen AIURRI aldizkariaren bigarren zenbakian. Lehenengo eta behin, idatzitakoagatik inorekin haserretu nahi ez dudala adierazi nahi dut, ez eta artikuluan aipatzen diren datu edo prezioengatik ere. Hori bai, baten batek gaiari buruz galderaren bat egin nahi baldin badit, primeran!

Orain dela bi urtez geroztik daukat gas naturala nere etxean eta artikuluan aipatzen diren prezioak eta nik ordaintzen ditudanak ez datoz bat. Neguan berogailurako, ur berorako eta dutxarako daukat nik gasa. Ba al dakizue zenbatekoa den azkenengo hilabeteko faktura? 4.701 pezetakoa, eta berogailua kontuan hartu gabe, ur beroa eta dutxa, soil-soilik. Artikuluan esaten denarekin izugarritzko aldea dago, hau da, bertan 2.164 pezetako kopurua aipatzen da ur bero, dutxa eta sukalderako gasagatik ordaindu beharrekoa.

Beharbada, kontagailua martxan izango dut gasa erabiltzen ez dudanean ere. Egia esan, ezin dut egiaztatu, kontagailua dagoen gelako giltzarik ez baitaukagu. etxean hiru kide izanda. Baliteke ere, artikuluan aipatutako zifrak okerrak izatea. Agian, artikuluko zifrei ez zaie gehitu hileroko gasa izateagatik, kontagailua alokatzeagatik ordaindu behar izaten den kopuru finkoa, ezta BEZa ere.

Billabona. 1994-6-28.

Julian Yarza.

36

Gogoan har ezazu irakurle, bidali nahi duzun karta edo idatzia, kasu guztietan, zure izena eta bi deituz eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin lagundu beharko duzula. Era berean, zure helbidea jakinaraziezaguzu, arren!

# UBANE

EDARITEGIA - JATEKOA

- Otaratekoak
- Kartara jateko aukera


Etxe Ondo, 6-7 - ☎ 69 34 42  
BILLABONA



ELEKTRATRESNAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

# AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3  
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45  
ANDOAIN



MENDIKO ETA ERREPIDEKO  
BIZIKLETAK

DENDAKO TELEF. 59 43 41  
TAILERREKO TELEF. 59 37 99

KALEBERRIA, 22  
20140 ANDOAIN

# BENITO

HARATEGIA  
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49  
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Joseba Erkizia Itoiz.  
Andoain.

## HABE-AEK: Normalizazioaren atarian?

Joandako ekainaren 6an hitzarmen bat sinatu zuten Joseba Arregik, HABEren izenean, eta Juan Mari Mendizabalek, AEKren izenean. Hala, hamar urte luze iraun duen liskarra bake bidera ekartzeko lehen harria jarri zuten. Bi erakundeon arteko gatazka dagoeneko kronikoa bihurtua genuen, Autonomi Estatutuaz geroztik bizi izan dugun *autzi historikoetako* bat izan baita HABE-AEKren arteko ezin ikusia.

Hitzartutakoaren arabera, AEK *“irakaslegoaren pres-takuntzan oinarrituta, zerga obligazioak eta gizarte se-gurantzakoak betez, bere euskaltegiak normaltze bidean”* jartzeko ardura hartuko du bere gain. HABEk, berriz, AEK-k adierazi duen normalizatzeko asmoa bideratzeko *“irakaslegoaren onarpenerako bitartekoak adosteko”* hitza ematen du. Horretaz gainera, bitariko batzordea osatuko dute, bi aldeen obligazio horiek nola gauzatu zehaz-tuko duena eta gizarteak euskara ikasteko egiten duen eskariari erantzuteko zer euskaltegi eskaintza behar den proposatuko duena.

Nork bere ikuspuntutik begiratuta, hitzartutakoa positi-botzat jo dute izenpetzaileek. Baita iritzia adierazi du-  
en alderdi politiko guztiek ere. Hala, Iñaxio Oliverik, EAren izenean, hitzarmena “ona” dela esan du, benetako konponbideak erabaki gabe geratu direla erantsi duen arren. Joseba Alvarezek, HBren izenean, akordioa “ga-rrantzitsua” dela adierazi du, nahiz eta -ezinbestean- ofi-zialtasunaren aldetik euskarak Iparraldean eta Nafarroan duen egoera gogorarazi duen. Eta Mario Onaindiak, PSE-EEren izenean, akordioa herri honen normalizaziorako “aurrerapausoa” dela esan du.

Euskaltzaleen eta euskararen nomalkuntzaren alde dau-den sektore guztietan ere, hitzarmena oso begi onez hartu dela esan genezake, huts egiteko beldur handirik gabe.

Balorazio positibo horiek, ordea, hitzarmenaren edu-kiari ez, baizik eta hitzartu izanari berari begiratuta egin direlakoan nago. Urte asko igaro baitira Jaurlaritzaren eta AEKren arteko komunikazio eta harreman normalduak

hautsi zirenetik. Denbora gehiegi euskarak adostasuna ez beste guztia soberan zuenean.

Errekaren ertz batean, izan ere, Jaurlaritza noraezcan ibili da luzaroan helduak euskalduntzeko politikaren alo-rran; hala, HABEk sorreratik bertatik izan duen egiturak ez zuen ezer onik agintzen eta, azkenean, bere euskalte-giak itxita bukatu du; hortaz, eginkizun nagusia euskal-duntze eta alfabetatze alorreko gidaritzak pedagogikoaz eta ikuskaritzaz arduratzea izango du HABEk aurrerantzean; eta euskalduntze lanak, berriz, udal euskaltegien eta eus-kaltegi pribatu homologatuen esku geratuko dira, euskal-tegi libreak normalizatzeko bidea urratzen segitzen den bitartean.

Eta, errekararen beste ertzean, AEK behin eta berriz muzin egiten aritu da Eusko Jaurlaritzak onartutako ho-mologazio eskaintzaren eta baldintzen aurrean. Horren ondorioz, gizarteari eredu nomalizatua eta egonkorra es-kaitzeko eragozpen handiak izan ditu AEK-k, eta denbo-ra igaro ahala galdu egin du orain dela urte batzuk eus-kalduntze prozesuan zuen nagusigoa, batez ere hiruburu-etan. Ez dira alferrik igaro azken hamabost urte hauek, eta AEK-k, gizartearen atxikimendu osoa zuela hamaika bi-der aldarrikatu ondoren, bere jarduna aldatu beharrean iku-si du bere burua. Gaur gauza nabaria baita AEK helduen euskalduntze-alfabetatze oso bitarteko garrantzi-tsua dela, baina ez dela bakarra ez nahikoa, ezta gutxiagorik ere.

Horregatik guztiagatik, agian ez gaude une txarrean adostasun sakonago eta iraunkorragora iristeko. Baina hori errealitate bihurtzeko, behar-beharrezkoa da alde batetik zein bestetik akordio hori izaera koiuntural hutsez ez ikus-tea eta aurrekoari ziria noiz sartu zain, zelatan bezala, ez egotea. Hitzarmenak irekitzen duen prozesu hori aukera paregabea izan daiteke helduen euskalduntze eta alfabe-tatzeko politikan oraindik zehaztu gabe dauden alderdi batzuk argitzeko eta politika hori eredu finkatu, adostu, normalizatu eta -beraz- bermatu batera biltzeko. Etorki-zunaren giltza, zalantzarik gabe, hitzarmenarekin ahalbi-detu den baina hemendik aurrera landu behar den kon-tsetsua izango da eta.

Horretaz ondo jabetu dela erakutsi du Joseba Arregi sailburuak, **atzera ez baizik aurrera begiratu behar dela** esan duenean eta hitzarmenaren balio nagusia etor-kizunerako baliagarria izateko duen ahalmenean ikusi due-nean. Jarrera berria erakutsi du, baita ere, Erramun Osa AEK-ko ordezkariak konponbiderako atea ireki dela ai-tortu eta **akordioa sendoago izan dadin AEK bere esku dagoen guztia egiteko prest dagoela** esan duenean.

Ez da dena, baina ez da gutxi ere auzoan arrotzak ikus-teko dugun bizio nazionala gainditu ahal izana, konben-tzimedu osoz izan nahiz egoerak derrigortuta izan. Ea bada benetan sinesten dugun egunotan alde batekoek gorai-patu duten **lankidetzan** eta bestekoek adierazi duten **nor-malizazio gogoan**. Bestela jai dugu!

\* Filologoa eta itzultzailea

# Uztailean, "Goazen jolastera"

### 200 neska-mutilek hartu dute parte aurtengo saioan

Agian, zuetariko askok galde-tuko zenioten zeuen buruari, zertan ibili ote diren hilabete osoan kalean alai eta abesten ikusi dituzuen hainbat eta hainbat haur. Askotxok ere ikusiko zenituzten herriko auzo, parke edo txokoetan: "Goazen jolastera 94" udaleku irekietako partaideak izan dira hain zuzen ere. Duela egun batzuk eman diote amaiera gainera, aurtengo saioari.

Zazpi urte geroztik ari gara oporraldiko lehen hilabetean, uztailean. Andoaingo Udalaren laguntzaz udaleku hauek antolatzen. Bertan aurrekola eta OHOk 5. maila bitartean ikasten duten neska-mutilek hartzen dute parte. Eragin nabaria du ekimen honek, batz bestea, herriko ikastetxe ezberdinetako 200 haur inguru biltzen zaizkigu.

Udaleku honen helburua bikoitza da: batetik, haurrek urtean zehar ikasi duten euskara maila ez galtzea, eta

bestetik, hilabete horretako aisialdirako zenbait ekintza eskaintzea.

Aurten hamahiru talde osatu ditugu, begirale banarekin. Besteak beste hauek dira burutu ditugun ekintzak: mendi irteerak, jolasak, antzerkiak, kirolak..... hau guztia lagunarteko giro alaiean. Ekintza hauen artean haurrek oso gustoko duten bat aipatu nahiko genuke: Karrikako "Ttipi-Txokoa" ludoketara egiten duten bisitaldia. Nahiz eta neska-mutil gehientsuen artean ezaguna izan, badira oraindik ere bertan egon ez direnak, eta egia esan, lehenengoz sartzen direnean txundituta gelditzen dira. Aurten lau urte betetzear dago Andoaingo Udal ludoteka eta bitarte horretan, nahiz eta ha-

rrigarria izan, badira hainbat herritar honen berri izan ez dutenak.

AIURRI aldizkariak eskaini digun tarte honetaz baliatu nahiko genuke Zikulusaltsa taldekidook, oraindik ludoteka ezagutzen ez duten andoaindarrei bere berri emateko, hain zuzen ere ludotekako partaideak baikara "Goazen jolastera" antolatu ohi dugunok. Ludotekak urte osoan zehar arratsaldez atek zabaltzen ditu ber-



Ludoteta ezagutzen

# BENTA

## Sagardotegia



Espezialitateak, bakailua  
tortillan, saltsan eta frijitua,  
txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO  
ERREPIDEA

☎ 69 30 94

# OGi ZURi

Okindegia

## ZURI ZURIA...

Lizarrakalea, 32  
☎ 69 18 96 ASTEASU

# OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,  
BAINO GOXO  
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26  
☎ 69 32 94 BILLABONA

# LEITZARAN FINKAK

ETXEBIZITZA ETA  
LOKALEN SALEROSKETA  
ETA ALKILERRARI  
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN

# ASTIGARRAGA

Bainu gelak Linterneria  
Kristaldegia Berogailuak

ERAKUSKETA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61  
ANDOAIN



tara hurbiltzen diren haur andoaindar guztiei. Euskararen erabilera haurren artean bultzatu, jolaserako duten ahalmena garatu eta elkarren arteko hartu-emanak estutzeko, ludoteka gune aproposena bilakatzea da gure helburua.

Urteotan haurrengandik jaso dugun harrera erabat positiboa izan da, eta horren lekuko helerazi nahi genuke aurtengo "Goazen jolastera" saioan parte hartu duten 4. eta 5. mailako hurrek ludotekari buruz idatziriko iritziak:

**Imanol, 9 urte:** "Ludoteka oso polita da. Neri asko gustatzen zait eta nire lagunek eta nik oso ondo pasatzen dugu. Ludotekan jostailu asko daude, liburuak, puzzleak... Ludoteka oso handia da, bestela jostailu guztiak ez ziren sartuko".

**Saioa, 9 urte:** "Egun batean "Goazen Jolastera"koekin ludotekara joan ginen eta neska batzuek karrikitxez eta panpinekin jolastu genuen. Parkera joan ginen gure haurrak paseatzere. Mutilei ez zait panpinetan jolastea gustatzen, bilarra edo futbolina nahiago dute. Goiz osoa pasatu genuen, eta ni ez nintzen konturatu ere egin".

**Marta, 8 urte:** "Ostegunean ludotekara joan ginen eta oso ondo pasa genuen. Han jostailu asko dau-



"Goazen Jolastera"ko neska mutilak

de: Alibabab, puzzleak, partxisa... Lehenengo jostailu batekin ibili ginen, gero bestearekin, horrela goiz osoa. Nahiko handia da ludoteka. Andereñoak esan digu berriro joango gara eta ni oso pozik jarri naiz".

**Asier, 9 urte:** "Uztaillean egunero "Goazen Jolastera"ko lagunekin izan gara. Beti gauza ezberdinak egin ditugu: futbola, mendia, jolasak... Nik piszinara joan nahi nuen baina ez du eguraldi ona egin".

**Iker, 8 urte:** "Ez nuen ludoteka ezagutzen eta lehengoan joan egin gi-

nen. Nik erregeei kamioi bat eskatu nien baina ez zidaten ekarri, eta ostegunean ludotekan kamio hori aurkitu nuen eta berarekin jolastu nuen. Beharbada, erregeek ludotekan utziko zuten beste neska-mutilek jolasteko".

**Ainhoa, 8 urte:** "Ludotekan ile-apaindegi bat eta kafetegi bat daude. Ni pelukera nintzen eta emakumeek itxaron egiten zuten bitartean, kafetegian kafe bat hartzen. Nik permanentea egin nien ruloekin".

"GOAZEN JOLASTERA 94"

**GAROA**  
auto eskola  
ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759  
20140 - ANDOAIN

**IRIARTE**

TABERNA  
JATETXEA

R.M. OTAÑO PLAZA 20159 ZIZURKIL. ☎ 69 37 50

# MUNIKOST

**LIBURUDENDA - PAPERDENDA**

Opor zoriontsuak opa dizkizue eta jakinarazten dizue ikastetxe guztietako **testu liburuak** salgai ditugula, enkargatu orain eta **dohainik** forratuta jasoko dituzuela

KALE NAGUSIA, 20 ☎ 59 16 57 ANDOAIN

## Andoaingo baserriak

Orain dela hirurogeita hamabost urte baziren gure herrian ehun eta laurogeita lau baserri, nik ezagutu eta bertara iritsi nintzenak. Sarreran ezkaratzea, sukaldea, sotoa eta atzean ikulua gabelarekin. Gainean logelak eta komuna, eta atzealdean mandioa bere sarrerarekin behar lasto eta gainerako ganadu janarekin edukitzeko, eta gorago ganbara arto, gari, patata, babarrun, sagar, intxaur, gaztaina, mizpira, baratxuri, tipula eta beste fruitu eta barazkiak jasotzeko.

Buruntza da Andoaingo bailararik handiena, berrogeita hiru etxe ditu: Sagarmendi, Errezilenea, Bazkardo (bi etxebizitza), Ubalategi, Ubalategi txiki, Arrantzu, Arrantzu goiko, Luberritza, Bixta on, Gorosti, Illaramendi (bi etxebizitza), Etxeberri Buruntza, Ikutza zahar, Ikutza berri, Iru-rain, Ibargoen, Perikotegi, Serora etxea, Elizalde, Elizalde txiki, Lizarraga, Elizagarate (bi etxebizitza), Arrieta, Eguzkitza (bi etxebizitza), Ato-rrasagasti (bi etxebizitza), Derrepente, Kamio, Kamio txiki, Igarategi, Etxe berri kalzada, Zalbide, Egues, Egues txiki. Agirre, Garagarza, Larramendi, Larramendi txiki, Upategi eta Idiazabal txiki.

Mendi honek 445 metro ditu tontorrean gurutzearekin eta inguruan San Rokeren ermitarekin. Gaurko egunean hamalau lurjota edo ezkutatuta daude, eta gelditzen diren hogeita hamar baserrietatik hemezortzi aritzen dira nekazaritzan edo ganaduekin.

(Hurrengoan emango dugu beste bailaren berri)

● Joxe Eizmendi

## Bertsotan



Joxe Manuel Oiartzabal  
Andoain.

### San Juan jaietako balantzia

*Bi bertsotan kontzentratu nahi,  
jaietako balantzia.*

*Egin ondoren hausnartutzeak,  
beti baitu garrantzia.*

*Xoxo xamarrek izan direla,  
behintzat nere iritzia.*

*Ados ez denari kostako zaio,  
nere hitza ixiltzia.*

*Gazterik ez zen ia ikusten  
kalean, ez al da drama,*

*Giro jator bat aurkitu nahi ta  
aurkitzen nolako lana.*

*Mucho MIAJON mucho TRIANA,  
eta mucho sevillana.*

*Berriro ere izango ditek,  
Hernaniko festek fama.*

Doinua: Txoriak eta txoriburuak





Egilea: Karmelo Marzol



MLARAVENDI



MLARAVENDI

**MANUEL  
LARRAMENDI**

**Kultur Bazkuna**

*ZU BAZKIDE  
EGIN ZAI  
GAUDE*

Euskaltzaleon elkartea.

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU,  
BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15-1, ANDOAIN ☎ 30 07 33